

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko maiatzaren 6a

45. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzurako hornidurak erosteko sistemari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina ([2. or.](#)).
- Berriobeitiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([12. or.](#)).
- Caparrosoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([26. or.](#)).
- Nafarroako Parlamentuaren ondasunen eta eskubideen inbentario orokorra egin eta mantentzeko instrukzioa ([43. or.](#)).

G Saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzurako hornidurak erosteko sistemari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzurako hornidurak erosteko sistemari buruzko fiskalizazio txostena, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzurako hornidurak erosteko sistemari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (3. or.).
- IV. Hornidurak erosteko prozeduraren deskribapena (3. or.).
- V. Ondorio eta gomendioak (5. or.).
 - V.1. Ondorioak (5. or.).
 - V.2. Gomendioak (6. or.).
1. **eranskina.** Ikuskapenaren xede diren gastuak. 2001eko aurrekontu-betetzea (8. or.).
2. **eranskina.** 2001ean indarra zeukaten lehiaketan edo prozedura negoziatuen zerrenda (9. or.).
3. **eranskina.** II. kapituluaren kontabilizaturiko gastuen alderaketa, 2000-2001 urteei buruzkoa (10. or.).
4. **eranskina.** Ikuskapenaren xede diren II. kapituluaren kontabilizaturiko gastuen alderaketa, 2000-2001 urteei buruzkoa (11. or.).

I. SARRERA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua Osasun Departamentuaren menpeko erakunde autonomo bat da, eta bere eginkizun behinena osasun laguntza ematea da. Horretarako, funtsean, bitarteko hauek ditu:

- Nafarroako osasun eskualde oinarritzakoak (oinarritzako laguntzako zentroak); guztira, berrogeita hamabi;

- honako ospitale hauek:

- * Nafarroako Ospitalea,

- * Bideko Ama Birjina Ospitalea,

- * Ubarmin Klinika,

- * Tuterako Reina Sofía Ospitalea eta

- * Lizarrako García Orcoyen Ospitalea;

- eta kontsultetarako zentroak nahiz adimen osasunekoak.

2001ean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 1.639 milioi pezetako dirusarrerak eta 83.526 milioi pezetako gastuak izan ditu, kapitulu ekonomikoen arabera honela xehekatuak:

Kapitulua	Milioiak
Langileak	45.866
Arruntak	17.721
Transferentzia arruntak	16.379
Inbertsioak	3.467
Kapital-transferentziak	93
Guztira	83.526

Erakundearen plantilla 7.206 lanpostukoa da; alegia, Nafarroako Gobernuak guztira dituen 18.403 lanpostuen %39. 7.206 horietatik, 5.824 beteta daude, eta gainerako 1.379ak, hutsik.

II. HELBURUA

Nafarroako Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Legeari jarraituz, 2002rako duen jarduera planaren barruan sartu da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren hornidurak erosteko sistemari buruzko fiskalizazio txostena.

Lan honek ondoko helburuak ditu:

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren horniduretarako erosketak kontabilitatean behar bezala erregistratzen ote diren egiaztatzea.
- Produktu horien erosketa-prozesuak ikuskatzea.
- Horietako bakoitzaren garrantzia aztertzea, kopuruaren eta nolakotasunaren ikuspegietatik.
- Produktu-lagin bati dagokionez, prozedurak betetzen ote diren ikuskatzea eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erosketa-unitate guztietan haiei jarraitzen zaizkiela egiaztatzea. Halaber, sistema guztian prezioak berberak direla egiaztatzea eta, kasua bada, egon daitezkeen aldean zergatiak aztertzea.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Lanak aztergai izan du gastuen aurrekontuko II. kapituluko (ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea) horniduren erosketa.

Gastuen kapitulu honen barnean ez ditugu aintzat hartu hirugarrenak egin beharreko zerbitzuak esleituz eginikoak, hala nola garbiketa, mantentze-lanak edo beste osasun-zentro batzuekin sinaturiko kontzertuak. Horrela, bada, zehazki honako kontusail hauek hartu ditugu aztergai:

Kode ekonomikoa	Kontzeptua
2200	Bulegoko materiala
2202	Prentsa
2210	Elikagaiak
2213	Protesiak
2214	Instrumentazioa eta tresneria
2215	Farmakoak
2216	Kontsumorako osasun materiala
2217	Arropak
2218	Albaitaritzako produktuak
2219	Bestelako hornidurak
2280	Elektrizitatea, ura eta gasa
2281	Erregaiak
2283	Konponketetarako materiala

2284	Garbiketarako materiala
2286	Produktu kimikoak
2289	Bestelako hornidura osagarriak

Kontabilitatean, produktu horiek 23 unitate ezberdini esleitzen zaizkie, eta garrantzitsuenak dira Nafarroako Ospitalea eta Bideko Ama Birjina Ospitalea. I. eranskinean taula bat txertatu da, zeinak agertzen baitu 2001ean kontabilizaturiko gastuen xehekapena, unitate bakoitzeko eta kontzeptuen arabera. Gastu horiek 8.862 milioi pezetakoak izan ziren.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz egin da lana.

Zehazki, erosketen kudeaketako zenbait arduradun elkarrizketatu ditugu, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erosketen datu-baseetan dauden datuei buruzko azterlana egin dugu. Horrela, azpitalde batzuei dagokienez, prezio ezberdinetan eginiko erosketak agertzen zituzten produktuak aztertu ditugu, jarraian espedienteak berrikusteko eta horren zergatiak arduradunekin aztertzeko.

2001ean, Nafarroako Gobernuak auditoretza operatibo bat egin zuen, "ospitale ezberdinetara bideraturiko farmazi produktuen hornidurari" buruzkoa; hori dela-eta, arreta horrelako horniduratarako bideratzea ez zaigu egokia iruditu, eta lan hori oinarri hartu dugu geurea egiteko.

Hornidura horiek erostean antolamendua, barne kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezko jo ditugun iruzkin eta gomendioak ere biltzen ditu txostenak.

Azterlana 2002ko martxotik maiatzera bitartean egin da.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileei, bai zerbitzu zentraletakoei bai unitate ezberdinetakoei ere, eskerrak ematen dizkiegu gure lana egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. HORNIDURAK EROSTEKO PROZEDURAREN DESKRIBAPENA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zazpi hornidura-zentro dauzka:

- Nafarroako Ospitalea,
- Tuterako Reina Sofía Ospitalea,
- Ubarmin Klinika,
- Lizarrako Ospitalea,

- Bideko Ama Birjina Ospitalea,
- Oinarritzko Osasun Laguntza eta
- Kanpoko Kontsultetarako Zentroa

Horiez gain, zerbitzu zentraletan hornidura-unitate bat dauka.

Hornigaiak erosteko prozedura biltegietako aplikazio informatikoan oinarritzen da; aplikazio horretan sarbidea daukate aurreko erosketa-zentro horiek, eta aplikazioaren bitartez biltegietako izakinen kudeaketa egiten da, eskaeren egoera kontrolatzen da, hornitzaileekin dagoen harremanaren berri izaten da edo hornigai jakin bat erosteko aukerak zein diren jakiten da.

Informazio hori eskuratzen da QMF programaren bitartez, SQL lengoia eginiko kontsulten bitartez.

a) Prozedura orokorra.

Osasunbideak zenbait kontratazio-prozesu egiten ditu, non produktu-zerrendak hornitzaile bati edo batzuei esleitzen baitizkie. Hornidura-zentroak prozesu horiei atxiki dakizkieke. Lehiaketa jakin bati atxikitzea edo ez atxikitzea erosketa-zentro horrek produktutik erosten duen kopuruaren baitan dago. Baldin eta hornidura-zentro bat ez bazaio lehiaketari atxiki eta beranduago produktu hori erosi nahi badu, lehiaketako prezioan erosi beharko du, eta esleipena hartu duen hornitzaileari.

Hornidura-zentroetako bakoitzak, erositako produktuen kopuruaren arabera, haien esleipena lehiaketa bidez egin dezake, eta kasu horretan lehiaketa hori zentro horretarako soilik izanen da. Oro har, beste zentro batzuek lehiaketa pertsonalizatuetako produktuak erosi nahi badituzte, eskaera egiten diote esleituriko hornitzaileari, eta esleituriko prezioan. Normalki, hornitzaileek baldintza horiek onartu ohi dituzte, nahiz eta ez den beti hala izaten.

Eskaera bat egiterakoan, ordenagailuko pantailaren bitartez artikularen kodea bilatzen da produktuen katalogoan, eta zenbait aukera suerta daitezke:

1. Kasuko produktua lehiaketa zentralizatu batean sartuta egotea; alegia, zerbitzu zentraletatik eginiko batean. Zentroa atxikia egon nahiz ez egon, produktua erosten dio esleituriko hornitzaileari eta esleituriko prezioan.

2. Kasuko produktua zentro baten lehiaketa batean sartuta egotea. Baldin eta zentro horrek egiten badu erosketa, esleituriko hornitzaileari eta esleituriko prezioan erosiko du; beste zentro batek

egiten badu, eskaria egin ahal izanen dio esleipeneke hornitzaileari eta lehiaketako prezioan; hornitzaileak, alabaina, eskaera horri baiezkota edo ezezkoa eman ahal izanen dio.

3. Baldin eta produktua ez badago lehiaketan sartuta, eskaera normal bat egin behar da; horretarako, sistemak eskaintzen ditu produktu horri dagokionez hornidura-zentroetatik egin diren eskaintza eta eskaera guztiak. Logikoa denez, eskaera egiten zaio preziorik baxuena eskaintzen duen hornitzaileari.

4. Gerta daiteke produktu hori kodetuta ez egotea. Hau da, inork ez du produktu hori erosi edo, erosi baldin badute, zerbitzu zentralek ez dute sartu produktuen katalogoan. Hala izanez gero, zentro arduradunak zerbitzu zentraletara katalogoan produktua sartzeko eskaera bidali behar du, non adieraziko baitu produktu-mota, haren ezaugarriak eta abar. Halaber, identifikazio-zenbaki bat esleituko dio eta produktuari informatikako aplikazioan alta emanen dio.

5. Produktu-kode berberak bere barnean har ditzake ezaugarri ezberdinak dituzten produktuak. Produktu horien izenak antzekoak dira, baina produktu ezberdinak dira. Halaber, gerta daiteke kode eta izen berarekin adieraztea erreferentzia ezberdina daukaten produktuak, haien hornitzaileak ezberdina delako. Kasu horretan, gerta daiteke produktua funtsean berdina izatea edo ezberdina, nahiz eta erabilgarritasun berekoa izan.

6. Kodetze orokor baten bitartez, erosketa puntualekoak diren produktuak jasotzen dira; alegia, kodetu gabeko produktuak, oso litekeena baita haiek berriro ez erabiltzea. Hornidura-zentroek kodetze orokor hori gero eta gutxiago erabiltzeko joera daukate; izan ere, zehaztasun handiagoa bilatzen dute. Alabaina, hori dela-eta, produktu batzuk kode okerrekin adierazi dira, eta horren ondorioz prezioak desegoki suertatzen dira.

2001ean zehar, 44 lehiaketa edo prozedura negoziatu zeuden indarrean (zerrenda II. eranskinan ikus daiteke), eta kalkulatzen da horien zenbatekoa urtean 3.259 milioi pezetakoa zela.

b) Farmakoak

Farmakoak beste modu batean erosten dira. Gogoan izan beharrekoa da kasu askotan produktu bat hornitzaile bakar batengandik eskuratzen dela.

Ospitaleetan Farmazia eta Terapeutika Batzorde bat egoten da, medikamentuen politika ezartzen duena, eta honako eginkizun hauek dituen:

• Langileei aholku ematea medikamentuei dagokien guztian.

• Medikamentu berriak baloratzea.

• Medikamentuak gomendatu, gehitu edo kentzea.

• Banaketa arazoak konpontzea.

• Solairuko botikinak ikuskatzea.

Batzorde hori medikuek, farmazialariek eta osasun arloko bestelako profesionalak osatzen dute, eta gida farmakoterapeutiko bat prestatzen du, non jasotzen baitira zentro horretako gaixoen beharrian guztiei erantzuteko aukeratu diren medikamentuak.

Nahiz eta bestelako erosketa-motak existitzen diren (banaketa-zentroei eginikoak, beste ospitale batzuei eginikoak), arruntena farmazia laborategiei erostea da. Erosketa hauetan, jarduteko modu orokorra honakoa izan ohi da:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko hornitzaileen datu-basetik, Farmazia Batzordeak lortzen ditu eskaintzak egiteko izangai suerta daitezkeen datuak. Urtean behin, laborategiei gonbita egiten zaie gidan sartutako medikamentuen eskaintzak aurkez ditzaten.

Hornitzaileek eginiko proposamenak alderatu egiten dira, nahiz eta kasu askotan produktu baterako hornitzaile bakarra egon, eta Batzordearen eskuetan uzten da erabakia.

Aldez aurretik, zentroetako farmazialariek proposamen guztiak koordinatzeko bilera egiten dute, irizpideak batzeko eta zerbitzu hobea lortzeko. Dena den, azken erabakia batzorde bakoitzak hartzen du.

Botika bat erosteko erabakia hartu ondoren, botika hori gidan sartzen da, ospitaleko langileek hura ezagutu eta erabiltzeko.

Botika-eskariak egiten dira urtean zehar eginiko kontsumoaren arabera, eta beharrezko dute Farmazia Zerbitzuko buruaren baimena. Sorgor-garrien kasuan, baldintza eta kontrol bereziak ezartzen dira.

V. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

V.1. ONDORIOAK

Hurrengo ondorioak atera ditugu egin dugun lanetik:

• Epean kontabilizaturiko gastua ez dator bat epe horretan bertan eginiko gastuarekin. III. eta IV. eranskinetan ikus daiteke nola gastu kontabilizatu txikiagoa den 2001ean, aurreko urtean

baino; zehazki, ehuneko 3, II. kapituluan, eta ehuneko 11, berrikusi diren gastuetan. Egoera horren zergatia da txosten honek aztergai duen kontusailan badaudela ekitaldi honetakoak diren gastuak –nagusiki, farmakoak– 1.623 milioi pezetako zenbatekoa daukatenak, eta 2002ko ekitaldiko aurrekontuan kontabilizatuak izan direnak. Egoera hau aurreragoko urte batzuetan ere gertatu zen, eta modu dinamikoagoan egin ahal izan zen kontzeptu horien ordainketa, aurrekontuen gehikuntzak onetsi zirelako. 2001ean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kredituak aldatzeko eskaera ez zen tramitatu. Jarraian, azken urteotan eginiko gehikuntzak adierazirik daude:

(pezetak, milioitan)

Urtea	Farmakoak	Bestelakoak	Guztira
1998	1.941	568	2.509
1999	2.714	407	3.121
2000	2.524	509	3.033
2001	0	1.422*	1.422

* Horietatik, 1.200 dira farmazia prestazioen kontusaillekoak; hau da, mediku-errezetak ordaintzekoak.

• Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak produktu eta hornidurak erostean, bi sistema ezberdini jarraitzen zaio: orokorra eta farmakoak erosteko erabilitakoa.

a) Farmakoen kasuan (gutxi gorabehera 6.200 produktuekin lan egiten da), medikamentuaren merkatuak dituen baldintza bereziak direla-eta (izan ere, prezioak araututa daude eta, kasu askotan, patente-eskubideekiko mendekotasuna dago), ez dira betetzen kontratuei buruzko foru legeko baldintzak. Dena den, esan behar da farmazia zerbitzuek oro har gardentasun egokiz egiten dituztela erosketa-prozesuak.

b) Orokorrean, aurkitzen dugu sistema honek zenbait erosketa-prozedura ezberdin ahalbidetzen dituela, erosketa zentralizatutik hasi eta zentro batek bere kasa eginiko erosketa arte. Horiek guztiak, 6.370 milioiko erosketa multzo baterako, zeinak barnean hartzen baititu gutxi gorabehera 24.000 produktu ezberdin. Oro har ondoriozta dezakegu erosketen administrazio-prozesua modu onargarrian egiten dela. Hala eta guztiz ere, jarraian aipaturiko kontuak gogoan hartu behar dira:

• Biltegietako fitxategi informatikoetako datuen arabera, lehiaketa bitartez eginiko erosketek 6.370 milioi horien % 43 egiten dute. Dena den, ohartarazi behar dugu ehuneko hori berez handiagoa dela, nahiz eta zenbatekoa ezin dugun zehaztu. Izan ere,

* Elikagai-sorta batzuk lehiaketa bidez erosten dira, nahiz eta, informatikako programak horretarako modua ez eskaintzeagatik, horrela erregistratzen ez diren.

* Lehiaketa guztiak abenduaren 31n bukatzen dira, eta sistema informatikoan baja ematen zaie. Berria onetsi bitartean, informatikako programak ez du lehiaketa bidezko erosketarik onartzen, nahiz eta hornitzaileak bere baldintzak mantendu.

* Baldintzen artean inflazio tasari buruzkoa daukaten lehiaketei dagokienez, urtearen amaieran hasi eta inflazio tasa (KPI) ezagutzen den arte igarotako epean egoera berbera gertatzen da.

• Produktu batzuk ezin dira lehiaketa bidez erosi, haien erosketa-baldintzak lehenagoko erosketa baten baldintzen menpekoak direlako. Multzo horretakoak dira, oro har, ekipamenduak funtzionatzeko beharrezkoak dituen hornidurak, elementu nagusiaren marka berekoak izan behar baitute.

• Produktuak sailkaturik daude familietan, taldeetan eta azpitaldeetan. Fitxategi informatikoko datuen arabera, azpitalde horietako produktuen erosketak, bai lehiaketa bidez eginikoak bai lehiaketatik at eginikoak ere, honela banatzen dira:

(pezetak, milioitan)

Lehiaketa bidezko erosketen %	Azpitalde kopurua	Lehiaketaren zenbatekoa	Lehiaketatik at
100	2	41	0
90-99	16	465	17
50-89	70	1.607	870
25-49	53	557	969
24-10	12	65	199
1-9	11	11	494
0	142	0	1.074
-	306	2.746	3.624

• Prezio ezberdineko produktuen laginketatik eginiko azterketan oinarrituz adieraz dezakegu azalpen onargarria lortu dugula, oro har. Horrela, nabaritu dugu prezioen arteko aldeak honako zergati hauen ondoriozkoak izan litezkeela:

* Produktu ezberdinak izatea. Adibidez, kode berak barnean hartzen ditu aparatu bat eta baita horren tresneria edo ordezkotako pieza ere.

* Neurketa-unitatea ez da homogenea.

* Hornitzaileak prezioa aldatu du.

* Artikulu batzuek prezio ezberdina izan dezakete, erabileraren arabera. Adibidez, zerrenda erreaktiboek prezio ezberdina daukate, nork erabiltzen dituen: gaixoak ala ospitaleak, bere barne erabilerarako. Gai horri buruz, adierazi beharre-

koa da hornitzaileak gaixoari aparatua lagatzen diola.

* Kode bera erabiliz kodetu dira erabilera berekoak diren eta hornitzaile desberdinengandik eskuratzen diren produktu batzuk, zeinak, elkarren arteko nolabaiteko aldea agertzearen ondorioz, produktu ezberdintzat jotzen baitira.

* Lehiaketa bateko esleipenaren eguna; ondorioz, lehenagoko erosketek beste prezio bat daukate.

* Batzuetan, zentro bakoitzak prezio ezberdina lortzen du, erosketaren zenbatekoaren arabera.

• Erosketetarako gaur egun erabiltzen den administrazio sistema hobetu daitekeen arren, behar adinako informazioa eskaintzen du a posteriori azterlanak egin eta produktuei nahiz prezioei buruzko ondorioetara iristeko.

V.2. GOMENDIOAK

Gomendioak egin aurretik, egoki deritzogu gomendioekin batera aintzat hartzekoak diren azken gogoeta batzuk egiteari.

Garrantzitsua da definitzea nor den eroslea; alegia, unitate bakoitza ala Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua; zeren eta, azken kasu horretan behintzat, erakunde berak produktu bera prezio ezberdinetan erosteak ez baitauka zentzurik; hori dela-eta, hornitzaile guztiei Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzu guztirako prezio bakarra eskatu beharko litzaieke.

Dena den, merkatuaren egoera aintzat hartu behar da; izan ere, hornitzaile-motaren arabera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ia "monopolio" baten indarra izan baitezake. Beste kasu batzuetan, ordea, gerta daiteke Osasunbideak eginiko erosketak ez izatea pisuzkoak hornitzailearentzat, erositako kopurua handia izan arren. Bestalde, zenbait kasutan ikusi ahal izan denez, gutxiago erosten duen entitate txiki batek prezio hobeak lor ditzake.

Bestalde, ezin da ahaztu horrelako lehiaketa bat egiteak lan handia ematen duela; hori dela-eta, zenbait kasutan, lan horrek haren abantailak indargabetu ditzake.

Gure lana egin eta gero, honakoa gomendatzen dugu:

a) *Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko gastu-aurreikuspena benetako beharrazanez egokitzea eta erosketak egitea behar adinako aurrekontu-kreditua aldeztu aurretik dagoenean.*

b) Biltegietako fitxategiak gaurkotzea, halako moldez non programa informatikoak jasoko duen erosketak benetan nola egiten diren. Horretarako, irtenbide bat aurkitu behar da arazo baterako; alegia, KPIren zenbatekoa oraindik argitaratu gabe egoteagatik programak denbora-epe batean ez duela onartzen lehiaketak berritzerik. Bestalde, lehiaketa berria sinatu edo lehendik zegoena luzatu edo salatu bitartean lehiaketaren indarraldia mantentzeko modua aztertu behar da.

c) Lehiaketetan ahal den produktu-kopururik handiena sartzea.

d) Produktu bakoitza bere kodearekin kodetzea, produktu ezberdinek kode bera izan ez dezaten; halaber, neurketa-unitate bera erabiltzea.

Era berean, ahalegina egin behar da ezberdinak diren produktuak kode ezberdinekin identifikatzeko.

e) Sistema bat ezartzea sistematikoki aztertu ahal izateko antzeko zein produktu erabil daitezkeen helburu bererako; batez ere, prezioen artean alde nabarmena dagoenean. Logikoa denez, prozesu honek osasun arloko profesionalen adostasuna behar du.

f) Aldiro azterlanak egitea prezio-aldaketak agertzen dituzten produktuak ikertzeko, horren

zergatiak ikusteko eta behar den ekintza errazteko.

g) Produktuak erosteko eta markaz edo hornitzailez aldatzeko arrazoi ekonomiko, tekniko edo profesionalak adieraztea.

h) Informatika arloko bitartekoak neurririk handienean baliatzea datu-base handiak izateko, baita beste erkidego batzuetako osasun zerbitzuekin lankidetzan ere, eskueran dagoen informazioa zabaltzeko eta kudeaketa onari laguntzeko.

i) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-
ren eta laguntza zentroen artean ezarritako "kudeaketa kontratu" deritzenetatik eratorritako helburuak koordinatzea aurrekontu-programetakoekin; batez ere, osasun-gastuaren arloan arduradun diren pertsona ugariak bereganatu behar dituzten ikusmolde ekonomikoei dagokienez; izan ere, kontuan hartu behar da Nafarroako Gobernuako departamentu guztien artean Osasun Departamentua dela gastuen aurrekontu-betetze handiena daukana.

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan honen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izaipideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

1. eranskina. Ikuskapenaren xede diren gastuak. 2001eko aurrekontu-betetzea

Atorturiko beaberharren batura	Ekonomikoa		Elkargiak				Protesiak				Tresneria		Kontsumorako osasun- materiala		Aropak produktuak		Albaitariza		Bestelako Elektrotzitatea, hornidurak ura eta gasa		Erregia		Konpon- ketarako materiala		Garbi- ketarako materiala		Produktu kimikoak		Beste osagarriak		Ostara, orokorra
	Bulego materiala	Prentsa	2200	2202	2210	2213	2214	2216	2217	2218	2219	2280	2281	2283	2284	2286	2289	Ostara	Bolikak												
Ogaritika	2200	2202	2210	2213	2214	2216	2217	2218	2219	2280	2281	2283	2284	2286	2289	Ostara	Bolikak														
51000 OSASUN ZUZENDARITZA NAGUSIA	3.306.202	2.316.113								1.985.250	776.774		156.298		8.540.637	8.540.637															
51100 OSASUN LAGUNTZAREN ZERBITZUA		78.163													78.163	78.163															
51200 OSASUN PUBLIKOAREN ZERBITZUA	3.445.701	2.069.028				23.859.932	756.044	8.720.739	4.519.761	5.278.101	1.204.841		1.266.953		51.121.100	212.578.930	263.700.030														
51231 JARDUERA MEDIKO-PREBENTIBOEN ETA ANTZEMATE GOIZTIARRAREN ATALA PREZIOA	1.825.781									8.115.601					9.941.382	9.941.382															
51300 OSASUNAREN IRAKASKUNTZA, IKERKETA ETA GARAPEN ZERBITZUA	1.349.653									782.014	783.770				2.915.437	2.915.437															
51320 IKERKETA BIOMEDIKOAREN ATALA		1.771.862													1.771.862	1.771.862															
52000 OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUKO KUDEAKETA ZUZENDARITZA	6.344.455	12.053.660								4.040.125	1.592.077	1.280.265	74.214		25.384.796	25.384.796															
52201 ODOL BANKUAREN ZERBITZUA			9.619.895		72.005.236	2.601.721				3.308.872				110.327.960	197.863.684	197.863.684															
52220 LAGUNTZA ANBULATORIOA																															
52230 KOORDINATZEKO ZUZENDARIORDETZA	33.604.669	1.330.402			22.094.941	56.511.364	2.120.864			9.314.113	7.335.025	3.124.803	3.138.154	225.248.197	363.822.532	4.794.705	368.617.237														
52230 NAFARROAKO OSPITALEA	38.236.570	23.005.653	131.776.664	543.386.513	51.424.509	981.413.589	12.304.622			62.144.919	89.542.324	70.793.570	36.542.618	562.220.987	2.602.792.538	962.197.634	3.584.990.172														
52240 BIDEKO AMA BIRJINA OSP. ZUZENDARITZA	37.143.553	20.051.406	118.826.703	145.630.195	60.365.842	702.439.960	11.513.395			81.319.887	21.392.446	40.826.844	31.215.823	342.488.429	1.613.214.283	547.371.213	2.160.585.496														
52241 LAGUNTZA MEDIKOAREN ZUZENDARITZA	4.569.801	500.000				21.712.867				1.414.754					28.197.422	2.000.000	30.197.422														
52250 UBARWIN KLINIKAKO ZUZENDARITZA	6.990.542		20.088.937	318.380.774	10.401.611	69.941.199	3.318.057			31.283.140	26.193.877	6.993.213	6.606.324	13.599.206	513.806.880	36.568.715	550.375.595														
52280 IKERKETA BIOMEDIKOAREN ZENTROA		1.241.144													1.241.144	1.241.144															
52300 OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZA ETA ADIMEN OSASUNEKO ZUZENDARITZA		5.612.190				991.443	1.059.596	15.043.768							76.583																
52310 NAFARROAKO IPARRALDEKO OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZAREN ZUZENDARIORDETZA	43.193.572				20.276.478	114.351.845				46.818.152	35.093.002			85.977.858	2.442.598	348.153.505	382.715.598														
52331 LAGUNTZA ZENTRO ETA ZERBITZUAK	596.986									0				4.045.741	4.642.727	4.642.727															
52332 "SAN FRANTZISKO XABIERKOA" OSPITALE PSIKOGERIATRIKOA	478.287				588.866	6.326.330	3.586.590			27.005.957	24.424.290	9.427.880		645.539	72.463.739	26.999.921	99.463.660														
52400 TUTERAKO OSASUN BARRUTIKO ZUZEND. OSPITALE PSIKOGERIATRIKOA	17.779.939	4.204.957		33.897.992	17.096.522	164.636.276	9.238.624			27.478.565	18.879.469	14.798.238	9.176.103	101.762.280	418.948.965	204.797.992	623.746.957														
52420 TUTERAKO BARRUTIKO OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZAKO ZUZENDARIORDETZA	3.568.571	698.146		3.403.391	13.731.476	875.978				7.820.190	5.787.778	1.608.849	623.743	14.145.940	52.264.062	2.996.754	55.280.816														
52500 LIZARRAKO OSASUN BARRUTIKO ZUZEND. 9.311.7182.930.83820.286.78280.926.172					96.494.134	5.145.375			15.160.300	6.916.450	9.048.975	6.044.089	86.731.985		329.185.246	57.381.490	386.546.736														
52520 LIZARRAKO BARRUTIKO OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZAKO ZUZENDARIORDETZA	4.481.775	654.615		3.177.172	34.453.076	247.296				4.580.369	5.141.003	20.184	1.031.444		53.786.934	6.840.442	60.627.376														
53000 NAFARROAKO LAN OSASUNAREN INSTITUT.	5.566.596	3.873.509		0	9.674	184.945				3.882.371	1.666.046		9.556		15.192.697	22.355	15.215.052														
Ostara, orokorra	221.794.371	82.391.686	300.608.981	1.102.221.646	271.002.996	2.288.474.886	50.351.386	8.720.739	27.679.120	333.616.979	246.729.172	148.494.941	105.313.199	1.542.502.842	7.210.461	6.736.113.305	2.123.632.632	8.861.745.937													

2. eranskina. 2001ean indarra zeukaten lehiaketen edo prozedura negoziatuen zerrenda

Lehiaketa		Urteko zenbatekoa, aurreikusia	Iraupena
1/01	Elikagaiak	174.536.355	2001-2003
2/01	Bulegoko materiala	61.794.230	2001-2003
3/01	Garbiketarako materiala	71.284.915	2001-2003
4/01	Osasun-materiala (pelikulak, esterilizazioa, hemodialisia, FOSHEZ)	274.199.338	2001-2003
5/01	Osasun-materiala (zundak, katet., orratzak eta xiringak, konpresak, gasak, aposituak).	507.639.065	2001-2003
6/01	Osasun-materiala (jostura meka., mat. kir., anestesiarako mat., aireztapen-sist.)	273.869.904	2001-2003
7/01	Laborategiko tresneria	89.253.802	2001-2003
8/01	Odol Bankurako erreaktiboak.	40.250.000	2001-2001
10/01	Sendatze-apositoak	12.736.190	2001-2003
11/01	Traumatologia-protesiak (aldaka eta belauna), Ubarmin Klinika.	264.859.698	2001-2002
12/01	Hematologia Laborategiko produktuak, Nafarroako Ospitalea.	55.316.573	2001-2004
13/01	Odol Bankuko Feresirako PLP ekipoak	59.170.000	2001-2004
14/01	Erradiofarmakoak eta hondakinen kudeaketa	50.323.637	2000-2003
15/01	Pauso-markagailuak eta desfibriladoreak Nafarroako Ospitalerako	134.198.500	2001-2003
16/01	GIB erreaktiboak, mikrobiologia, Nafarroako Ospitalea	25.397.696	2001-2004
17/01	Osasun arloko materiala bihotzeko eta hodietako kirurgiarako	41.060.000	2001-2003
18/01	Protesiak, bihotzeko eta hodietako kirurgiarako	50.130.000	2001-2003
21/01	Lizarrako Ospitaleko larrialdietako laborategiko erreaktiboak	8.590.056	2001-2004
22/01	Dializagailuak Tuterako Ospitalerako	15.964.800	2001-2004
23/01	PN-Sendatze-apositoak	34.519.274	2001-2003
24/01	Hemodinamikarako osasun-materiala, Nafarroako Ospitalea	85.755.830	2000-2002
25/01	Erradiologiako osasun-materiala, ebakuntzak. Nafarroako Ospitalea.	84.847.720	2000-2002
26/01	Erradiologiako protesiak. Ebakuntzak. Nafarroako Ospitalea.	26.393.507	2000-2002
27/01	Nafarroako Ospitaleko Biokimika Zerbitzuko aurrekontuak (hormonak, perfil.)	41.591.379	2000-2003
28/01	Traumatologia-protesiak (aldaka, belauna) Nafarroako Ospitalea.	70.599.630	2000-2002
30/01	Nafarroako Ospitaleko Mikrobiologiako Laborategirako aurrekontuak	25.697.191	1998-2001
31/01	Larrialdi eta Biokimika Laborategirako produktuak. Nafarroako Ospitalea.	15.998.424	1998-2001
32/01	Glukosa-odol zerrenda erreaktiboak, Oinarrizko Osasun Laguntza, Tuter eta Ekialdea	114.491.252	2001-2004
33/01	Biokimika laborategiko produktuak, Nafarroako Ospitalea.	50.791.080	1999-2002
34/01	Langileentzako uniformeak.	16.804.357	2000-2003
35/01	Hemodinamika-protesia, Nafarroako Ospitalea	65.683.700	2000-2002
36/01	Anatomia patologikoko produktuak, Nafarroako Ospitalea.	32.493.350	2000-2003
37/01	Kataratetarako set-ak, Bideko Ama Birjina Ospitalea.	12.425.000	2000-2002
38/01	Vitrectom set-ak, Bideko Ama Birjina Ospitalea.	7.488.200	2000-2002
39/01	Bideko Ama Birjina Ospitalerako inprimakiak.	978.567	2000-2002
40/01	Traumatologia-protesiak (aldaka eta belauna), Lizarrako Ospitalea.	47.400.000	2000-2002
41/01	Neuroestima-sistemak. Oinazerako Unitatea, Nafarroako Ospitalea.	27.641.320	2001-2003
42/01	Prozedura Negoziatua. – Erabili eta botatzeko tresneria, mamotomoa.	4.661.348	2000-2003
43/01	Prozedura Negoziatua. – Erabili eta botatzeko tresneria ultrasonikoa.	15.061.320	2000-2003
44/01	Prozedura Negoziatua. – Apositu hotza, toalladuna.	2.623.500	2000-2003
45/01	Prozedura Negoziatua. - Birikak aireztatze sistemak, Nafarroako Ospitalea.	12.750.000	2001-2003
46/01	Laborategi-produktuak, anbulatorioa.	235.226.960	2001-2004
47/01	Prozedura Negoziatua. – Laborategi-tresneria (hodiak).	13.214.640	2001-2003
48/01	Prozedura Negoziatua. – Glukosa-odol zerrenda erreaktiboak, Nafarroako Ospitalea.	3.383.000	2001-2003
		3.259.095.308	

3. eranskina. II. kapituluaren kontabilizaturiko gastuen alderaketa, 2000-2001 urteei buruzkoa

Ekonomikoa	Kontzeptua	Aitorturiko betebeharrak, 2001	Aitorturiko betebeharrak, 2000	Gehikuntzaren %, 2000rekin alderatuta
2020	Errentamenduak, eraikinak eta bestelako eraikuntzak.	56.036.765	59.420.989	% -5,70
2120	Eraikinen konponketak, mantentze lanak eta kontserbazioa	214.254.889	202.887.462	% 5,60
2169	Ondasun higigarrien konponketak, mantentze lanak eta kontserbazioa	220.306.139	225.220.747	% -2,18
2200	Bulegoko materiala	221.794.371	196.366.028	% 12,95
2202	Prentsa, aldizkariak, liburuak	82.391.686	73.181.121	% 12,59
2210	Elikagaiak	300.608.981	291.156.919	% 3,25
2213	Protesia	1.102.221.646	1.095.598.676	% 0,60
2214	Instrumentazioa eta tresneria	271.002.996	256.734.069	% 5,56
2215	Farmakoak	2.123.632.632	3.346.880.418	% -36,55
2216	Kontsumorako osasun-materiala	2.289.474.886	2.220.753.523	% 3,09
2217	Osasun-erabilerarako arropak	50.351.386	47.527.740	% 5,94
2218	Albaitaritzako produktuak	8.720.739	8.549.603	% 2,00
2219	Bestelako hornidura bereziak	27.679.120	27.783.742	% -0,38
2220	Telefono bidezko komunikazioak eta abar.	207.681.348	211.672.617	% -1,89
2230	Gastuak, garraioak eta pleitak	35.105.158	31.571.518	% 11,19
2249	Aseguruak eta bestelako arriskuak.	178.526.152	113.154.033	% 57,77
2250	Toki tributuak	24.122	34.686	% -30,46
2261	Ordezkatze-lanetako protokolo-eginkizunak	1.357.790	1.894.437	% -28,33
2262	Publizitatea eta propaganda	38.728.177	41.202.421	% -6,01
2263	Gastu juridikoak.	232.673	153.072	% 52,00
2264	Erkidegoetako gastuak.	342.492	536.606	% -36,17
2666	Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak	43.952.406	53.685.682	% -18,13
2269	Bestelako gastu askotarikoak	502.835.905	366.875.202	% 37,06
2270	Ikuztegi-zerbitzuak	433.111.908	399.374.489	% 8,45
2271	Garbiketa-zerbitzuak	1.213.498.862	1.084.241.882	% 11,92
2274	Segurtasun-zerbitzuak	142.002.356	131.676.783	% 7,84
2276	Azterlanak eta lan teknikoak	89.811.654	88.088.130	% 1,96
2278	Elikadura Zerbitzuak	235.038.196	188.301.030	% 24,82
2279	Hirugarrenek eginiko bestelako lanak.	2.205.366.881	2.082.021.855	% 5,92
2280	Elektrizitatea, ura eta gasa	333.616.879	324.981.857	% 2,66
2281	Erregaiak	246.729.172	296.561.089	% -16,80
2283	Ordezko materiala	148.494.941	142.292.121	% 4,36
2284	Garbiketarako materiala	105.313.199	99.762.645	% 5,56
2285	Jantziak	0	4.772.589	% -100,00
2286	Produktu kimikoak eta laborategikoak	1.542.502.842	1.500.954.888	% 2,77
2289	Bestelako hornidura osagarriak	7.210.461	8.856.345	% -18,58
2300	Dietak, joan-etorriak eta bidaia-gastuak	122.998.740	92.633.348	% 32,78
2400	Liburuak eta argitalpenak editatzeko gastuak	11.658.804	10.909.488	% 6,87
2590	Osasun laguntzako itunak	3.167.317.030	3.260.578.974	% -2,86
Osotara, orokorra		17.981.934.384	18.588.848.824	% -3,26

4. eranskina. Ikuskapenaren xede diren II. kapituluaren kontabilizaturiko gastuen alderaketa, 2000-2001 urteei buruzkoa

Ekonomikoa		Aitorturiko betebeharrak, 2001	Aitorturiko betebeharrak, 2000	Gehikuntzaren %, 2000rekin alderatuta
2200, guztira	Bulegoko materiala	221.794.371	196.366.028	% 12,95
2202, guztira	Prentsa	82.391.686	73.181.121	% 12,59
2210, guztira	Elikagaiak	300.608.981	291.156.919	% 3,25
2213, guztira	Protesia	1.102.221.646	1.095.598.676	% 0,60
2214, guztira	Instrumentazioa eta tresneria	271.002.996	256.734.069	% 5,56
2216, guztira	Kontsumoko Os. mat.	2.289.474.886	2.220.753.523	% 3,09
2217, guztira	Arropak	50.351.386	47.527.740	% 5,94
2218, guztira	Albaitaritza-produktuak	8.720.739	8.549.603	% 2,00
2219, guztira	Bestelako hornidurak	27.679.120	27.783.742	% -0,38
2280, guztira	Elektrizitatea, ura eta gasa	333.616.879	324.981.857	% 2,66
2281, guztira	Erregaiak	246.729.172	296.561.089	% -16,80
2283, guztira	Konponketa-materiala	148.494.941	142.292.121	% 4,36
2284, guztira	Garbiketarako materiala	105.313.199	99.762.645	% 5,56
2285, guztira	Jantziak	0	4.772.589	% -100,00
2286, guztira	Produktu kimikoak	1.542.502.842	1.500.954.888	% 2,77
2289, guztira	Beste hornidura osagarriak	7.210.461	8.856.345	% -18,58
Osotara, orokorra		6.738.113.305	6.595.832.955	% 2,16
2215, guztira	Farmakoak	2.123.632.632	3.346.880.418	% -36,55
Osotara, orokorra		8.861.745.937	9.942.713.373	% -10,87

Berribeitiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 11n eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Berribeitiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko urriaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Berribeitiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (12. or.).
- II. Helburua (13. or.).
- III. Norainokoa (13. or.).
- IV. Iritzia (13. or.).
 - IV.1. 2001eko aurrekontuaren likidazioa (13. or.).
 - IV.2. Ondare egoerari buruzkoa (14. or.).
 - IV.3. Legezkotasuna (14. or.).
 - IV.4. Finantza egoera (14. or.).
 - V.5. Beste alderdi batzuk (14. or.).
- V. Kontabilitateko egoera-orriak (15. or.).
- VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (17. or.).
 - VI.1. Antolaketa orokorra (17. or.).
 - VI.2. VI.1. Aurrekontuaren betetzearen inguruko iruzkin orokorrak (17. or.).
 - VI.3. Langile gastuak (17. or.).
 - VI.4. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea (17. or.).
 - VI.5. Transferentzia arruntak (18. or.).
 - VI.6. Inbertsioak (18. or.).
 - VI.7. Kapital transferentziak (18. or.).
 - VI.8. Aktiboen aldaketak (18. or.).
 - VI.9. Pasiboen aldaketak (18. or.).
 - VI.10. Tributuen bidezko diru-sarrerak (19. or.).

VI.11. Transferentzia arruntak eta kapitalekoak (19. or.).

VI.12. Finantza-egoera (19. or.).

VI.13. Egoeraren balantzea (21. or.).

VI.14. Hirigintza (12. or.).

I eranskina. Berribeitiko Udalaren organigrama 2001-12-31n (23. or.).

II eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa (24. or.).

Berribeitiko Udaleko alkateak aurkeztutako alegazioak (25. or.).

Aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emaniko erantzuna (26. or.).

I. SARRERA

Berribeitiko Udala 1991n sortu zen, Antsoaingo Zendeako lehengo udala hiru entitate berritan bereiztean: Antsoain, Berriozar eta Berribeiti.

Berribeitiko Udala honako kontzeju hauek osatzen dute:

Kontzejua	Biztanle kopurua 1991n	Biztanle kopurua 2001ean
Aitzoain	204	266
Añezkar	66	91
Artika	219	483
Ballariain	15	12
Berribeiti	181	214
Berriogoiti	58	113
Elkarte	21	21
Larrageta	36	42
Lotza	49	58
Oteitza	47	69
Guztira	896	1.369

Datu hauetatik ondoriozta daiteke udalaren biztanle kopuruak % 53ko igoera izan duela bere 10 urteko bizitzan.

Udalaren bereizketaren ondorioz, giza baliabideen banaketa egin zen, eta Berribeitiko Udalari administrari-ofizial bat eta zerbitzu anitzetako langile bat egokitu zitzaizkion; hortaz, esan daiteke udal berriak ia baliabide administratiborik gabe ekin ziola bizi berriari, eta bizilagunen eta udale-

rrian dauden industrialdeetako industrien premiei erantzuna eman beharra du.

Foru Komunitateko hiriburuaren ondoko udalerria da, eta Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago ur hornidurarako, hondakinen bilketa eta tratamendurako eta eskualdeko garraiorako zerbitzuak emateko, eta Antsoain, Berriozar eta Berriobeitiko udalen oinarritzko gizarte zerbitzuen mankomunitatean zerbitzu horiek emateko.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari, Nafarroako Toki Administrazioari uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/2001 Foru Legeari jarraituz, Berriobeitiko Udalaren 2001eko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta gastuen eta dirusarreraren aurrekontu-betetzea fiskalizatu ditugu.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuak eta administrazio-kontratazioa eraentzen duten arauak osatzen dute; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gainontzeko araudiak ere.

Kontabilitate eta aurrekontu arloetarako araubide juridikoa ezarririk dago 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 273 foru dekretuetan, hurrenez hurren, Nafarroako Toki Administrazioari aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitateari buruzkoetan.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Berriobeitiko Udalaren aurrekontuaren garapena eta burutzea.

b) 2001eko abenduaren 31ko ondare-egoerak duen agerpena, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon den.

d) Udalaren finantza-egoera 2001eko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Comptos Ganberak Berriobeitiko Udalaren 2001eko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka.

Eginiko lanaren aztergai nagusia dirusarreraren eta gastuen kapitulu ekonomikoen eta ondare-masen berrikuspena izan da, eta antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolari dagozkien puntuak aztertu ditugu.

Fiskalizazio lana Espainiako estatuko barne kontrolerako erakunde publikoen koordinazio batzordeak onartutako printzipio eta arauari jarraituz egin da. Lana hasi aurretik Udalari bidalitako galdera sortak islatutako arazo eta bestelako gora-beherei egokitutako frogak ere egin ditugu.

Txostenean daude udalaren antolamendua, barne-kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak.

Azterketa lana 2002ko ekainean egin da.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

IV. IRITZIA.

Egindako fiskalizazioaren barrenean, Berriobeitiko Udalaren kontuak aztertu ditugu; horietan sarturik daude aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuaren emaitza, diruzaintzako gerakina eta 2001eko abenduaren 31ko egoeraren balantzea, udalaren erantzukizunaren pean prestatuak.

Berrikuspena egitean, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoretza-arau eta -prozedurak aplikatu dira.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzia agertuko dugu:

IV.1. 2001EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Honekin batera doan 2001eko aurrekontuaren betetzearen egoera-orriak behar bezala erakusten ditu fiskalizaturiko ekitaldian udalak egindako eragiketak.

Ekitaldi honetan irizpidea aldatu da jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kudeaketan eta kobrantzan, orain arte aurreko urtekoa ordainarazten baitzen eta hemendik aurrera berriz urtean bertan. Hori dela-eta, 2001eko aurrekontuaren likidazioan sarturik daude 2000ko eta 2001eko dirusarrerak, 40na milioioak.

IV.2. ONDARE EGOERARI BURUZKOA

- Udal ondasunen inbentario gaurkoturik ez dago.

- Egoera balantzean ez dago jasorik udalak finantza entitate batean eperako ezarriko duen 87 milioiko zenbatekoa.

- Balantzeko aurrekontuz kanpoko zordunen eta hartzekodunen saldoak eta kasuan kasuko egoera-orrietakoak ez datoz bat.

- Balantzearen pasiboan ez dago sarturik zor bizia.

Horrek guztiak galarazi egiten digu balantze horren arrazoizkotasunari buruzko iritzia ematea.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Aurrekontuak onesteko eta obra espedienteak egiteko gai formaletan araudi indardunaren arau-hausteak antzeman ditugu. Halaber, arau-hausteak zabalduak daude langileen kudeaketa eta kontratazioaren arloan.

IV.4. FINANTZA EGOERA

Berribeiteko Udalaren finantza egoerak ezau-garri hauek ditu: aurrekontuko superabita, ehune-ko 1eko zorpetze-maila eta ehuneko 51ko zorpe-tze-muga, 270 milioiko diruzaintzako gerakin positiboa eta 87 milioiko finantza inbertsioa.

IV.5. BESTE ALDERDI BATZUK

Berribeiteko Udala hedatze fasean dago: aurreikuspenen arabera, egungo biztanle kopurua –1.300– handitu eta 8.000tik gorakoa izanen da; horrek aldaketa nabarmena ekarriko du eman beharreko zerbitzuetan eta, ondorioz, udalaren premietan.

Laburtzeko, eta ondorio orokor gisa, esan dezakegu Berribeiteko Udala sortu zenez geroztik ahalegindu dela lehendik zeuden beharrei erantzuten; egun hirigintzaren aldetik hedatze fasean dago, eta horrek finantza egoera ona izateko behar adina baliabide eman dio, baina kudeaketan zenbait akats antzematen dira, bereziki langileen kontratazioan eta obra espedienteen prestatetan. Horregatik, gure gomendioa da:

- *Langileen egoera erregularizatzea.*

- *Plantilla egokitzea lanpostuen errealitateari.*

- *Kontratazioaren gaineko arauak bete eta eskatzen den dokumentazio guztia sartzeko espedienteetan.*

- *Egoeraren balantzea berrikustea eta kontusailetan sartzeko udalaren aktibo eta pasibo guztiak.*

- *Jarduketa plan bat egitea, epe laburrera biztanle kopuruan gertatuko den igoera nabarmenari begira zerbitzuak eta horiek emateko modua zehazteko helburuarekin.*

V. KONTABILITATEKO EGOERA-ORRIAK

Aurrekontuaren betetzearen egoera-orria. 2001eko ekitaldia

Gastuak	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitorturiko betebeharrak	Egindako ordainketak	Betetakoa (%)
Langileak	70.363.313		70.363.313	67.646.098	67.646.098	% 96
Erosketak	55.925.000	1.500.000	57.425.000	49.713.204	44.070.481	% 987
Interesak	3.245.000		3.245.000	981.801	981.801	% 930
T. arruntak	45.776.749		45.776.749	41.945.926	39.883.844	% 992
Inbertsioak	125.755.459	207.146.934	332.902.393	127.020.082	112.128.380	% 938
Kapital t.				4.357.708	4.357.708	
Aktiboen aldak.				87.000.000	87.000.000	
Pasiboen aldak.	4.920.000		4920.000	5.033.816	5.033.816	% 9102
Gastuak, guztira	305.985.521	208.646.934	514.632.455	383.698.635	361.102.128	% 975

Dirusarrerak	Hasierako kreditua	Behin betiko kreditua	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Betetakoa (%)
Zuzeneko zergak	154.437.401	154.437.401	167.761.273	158.248.176	% 9109
Zeharkako zergak	49.645.543	49.645.543	100.351.149	99.978.638	% 9202
Tasak	11.085.000	11.085.000	9.961.712	9.569.076	% 990
Transferentzia arruntak	40.742.577	40.742.577	46.170.172	46.170.172	% 9113
Ondare dirusarrerak.	700.000	700.000	4.335.561	4.335.561	% 9619
Inbertsioen besterentzea			14.768.910	14.768.910	
Kapital transf.	49.375.000	49.375.000	43.030.496	31.806.287	% 987
Gastuak, guztira	305.985.521	305.985.521	386.379.273	364.876.820	% 9126

2001eko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza.

Kontzeptua	Aurreko ekitaldia	Itxiera-ekitaldia
Aitorturiko eskubide garbiak	951.110.173	386.379.273
Aitorturiko betebeharrak garbiak	704.345.748	383.698.635
Aurrekontuaren emaitza.	246.764.425	2.680.638
Doikuntzak		
Finantzazio desbideraketa positiboak	61.929.004	
Finantza desbideraketa negatiboak		31.438.125
Finantza gastuak diruzaintzako gerakinarekin	3.186.310	
Merkataritzako eragiketen emaitza		
Aurrekontu emaitza doitua	188.021.731	34.118.763

Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria

Kontzeptua	Aurreko ekitaldia	Itxiera-ekitaldia	Aldaketaren %
+ Kobratzeko dauden eskubideak	215.002.803	45.858.882	% -79
+ Dirusarren aurrek.: indarreko ekitaldia	178.802.490	21.502.453	
+ Dirusarreen aurrek.: itxitako ekitaldiak	3.353.005	20.589.844	
+ Aurrekontuz kanpoko dirusarrerak	35.238.321	15.410.534	
- Bilketa zaileko eskubideak	2.391.013	11.643.949	
- Ordaintzeko dauden betebeharrak.	145.220.278	26.345.920	% -82
+ Gastuen aurrek.: indarreko ekitaldia	112.393.303	22.596.507	
+ Gastuen aurrek.: itxitako ekitaldiak			
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	32.826.975	3.749.413	
+ Diruzaintzako funts likidoak	202.659.838	249.435.540	% 23
+ Finantziazio-desbideraketa metatu negatiboak		960.629	Guztira
= Diruzaintzaren gerakina, guztira	272.442.363	269.909.131	% -1
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina	30.871.525		% -100
Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina	134.593.412		% -100
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	106.977.426	269.909.131	% 152

2001eko egoera-balantzea

AKTIBOA

Azalpena	Zenbatekoa itxiera-urtean	Aurreko urteko zenbatekoa
Ibilgetua	1.305.264.152	1.192.556.820
1 Gauzazko ibilgetua	276.520.401	284.322.594
2 Ibilgetu ez-materiala	26.666.218	23.145.697
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	1.002.077.533	885.088.529
4 Herri ondasunak		
5 Finantza ibilgetua		
6 Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak		
Ibilkorra	306.917.371	420.053.654
7 Zordunak, itxitako aurrekontuak, aurrekontuez kanpokoak	35.979.378	38.591.326
8 Aurrekontuko zordunak	21.502.453	178.802.490
9 Finantza kontuak	249.435.540	202.659.838
Aktiboa, guztira	1.612.181.523	1.612.610.474

PASIBOA

Azalpena	Zenbatekoa itxiera-urtean	Aurreko urteko zenbatekoa
Funts berekiak	1.585.835.603	1.467.390.196
1 Ondarea eta erreserbak	1.383.701.286	773.524.798
2 Entregaturiko ondasun eta eskubideak		
3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	202.134.317	693.865.398
Epe luzerako zorrak		
4 Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak		
Epe laburreko zorrak	26.345.920	145.220.278
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	3.749.413	32.826.975
6 Aurrekontuko hartzekodunak	22.596.507	112.393.303
Pasiboa, guztira	1.612.181.523	1.612.610.474

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan zenbait iruzkin egiten dira gastu eta dirusarreraren kontusailei buruz, bai eta udalaren antolaketaz eta kontrolaz ere, aurreko atalean aipatutako iritzia azaldu eta osatzeko asmoarekin. Iruzkin horien ondorioak dira Berriobeitiko Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa hobetzeko egiten ditugun gomendioak.

VI.1. ANTOLAKETA OROKORRA

Aurrekontuak betetzeko, Berriobeitiko Udalak aurrekontua betetzeko oinarriak, ordenantza fiskal orokorra eta 21 ordenantza fiskal erabiltzen ditu. Gastuak Gobernu Batzordeak -hamabostetik behin biltzen da- onesten ditu, alkateak eskumen hori eskuordetu baitzion.

Idazkaria idazkari-kontuhartzaile lanetan aritzen da eta kontabilitateaz arduratzen den pertsona bat ere badago.

2001eko ekitaldiko aurrekontua 2001eko urtarilaren 31n onetsi zen hasiera batez, 314 milioi pezetako zenbatekoarekin. Maiatzaren 10eko osoko bilkuran, berriz, behin betiko aurrekontua onetsi zuen udalak, 306 milioi pezetako zenbatekoarekin. Alegia, udalak onetsiriko behin betiko aurrekontua hasierakoa baino txikiagoa izan zen, epe baliodunean erreklamaziorik aurkeztu gabe.

Bankuko kontuen erabilera kontuaren titularretatik edozeinek egiten du.

Aurrekontua onesteko Toki ogasunei buruzko Legearen 202. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitzea gomendatzen dugu.

Funtsak erabiltzeko baterako bi sinadurarekin egitea, gutxienez.

VI.2. VI.1. AURREKONTUAREN BETETZEARREN INGURUKO IRUZKIN OROKORRAK

Hasierako aurrekontua 306 milioikoa bazen ere, behin betikoak 515 milioi egin zituen, batez ere dirusarreraren egoera-orrian gerakinak -179 milioi- eta urbanizazio kuotak -29 milioi- sartzeagatik eta gastuetarako inbertsioetarako sartutako kredituengatik.

Gastu eta dirusarreretan, betetze maila ehuneko hirurogeita hamabostekoa da, gehien bat inbertsioen kapituluaren betetze maila txikiak eraginda -ehuneko hogeita hamazortzi-, bai eta inbertsioak ez egitearen ondorioz sortu ez ziren dirusarreretako kapital transferentzienak ere.

2001eko ekitaldiaren itxierako emaitza hiru milioi pezetakoa izan zen, 34koa finantzaketa desbideraketekin doituz gero. Diruzaintzako gerkina 270 milioi pezetakoa da, aurrezki gordina 169 milioi pezetakoa eta garbia 163 milioikoa.

Nabarmendu beharra dago udalaren diru iturri nagusia zerga bidezko dirusarrerak direla, ekitaldian aitorturiko eskubideen ehuneko 72 egiten baitute.

Aurreko datuetatik ondorioztatzen da udalaren finantza egoera oso ona dela.

Gure gomendioa da inbertsioen betetze prozesua aurrekontu aldira egokitzea.

VI.3. LANGILE GASTUAK

Aurrekontua 70 milioi pezetakoa da, eta betetzeak 68 milioi egin du, hau da, kapituluaren ehuneko 96koa, eta udalak aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 18koa. Aurreko urtearekin alderaturik, ehuneko 33ko igoera izan dute, aurreko ekitaldian langileak sartu zirelako eta 2001.ean Guztira sortu diren zenbait osagarri ezarri zirelako.

Eranskinean ageri da udalaren organigrama.

Kontabilizaturiko gastua urtean ordaindutako nominena da. Nolanahi ere, nabarmendu beharra dago akatsak antzeman ditugula langileen kudeaketaren arloan. Horra azpimarratzen ditugunak:

- Plantilla organikoa ez dator bat lanpostuen errealitatearekin.

- Lansarien osagarriak ez daude behar bezala islaturik plantilla organikoan.

- Ez da aplikatzen administrazio publikoetan langileak sartzeari buruzko araudia. Oro har, aldi baterako kontratazioak egiten dira INEMen bitartez eta kontratu horiek finko bihur daitezke, kontraturik izan gabe ere.

Gure gomendioa da langileen arloko politikarako beste ildo batzuk ezartzea eta lehenago azaldutako akatsak erregularizatzea.

VI.4. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA

Aurrekontua 57 milioi pezetakoa da, eta betetzeak 50 milioi egin du, hau da, kapituluaren ehuneko 87koa, eta udalak aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 13koa. Aurreko urtearekin alderaturik ehuneko bosteko igoera izan du.

Gastuen kontusail handiena berdeguneen mantentze-lanena da, 11,6 milioi pezetako zenba-

tekoarekin; horri gehitu beharko litzaioke berdegune horietarako ur-kontsumoak egiten duen 2,2 milioiko zenbatekoa.

Hurrengo gomendioak emanen ditugu egindako lanaren ondorioz:

- *Klausulen pleguen baldintzak betetzeko eskatzea, hala nola egin beharreko lanak astero aurkeztea, edo adjudikazio hartzaileek kontratatu beharreko aseguru poliza.*

- *BEZaren tasa aldatuz gero, kontrataturiko prezioaren zenbatekoa doitzea.*

- *Aholkularitzako lanen kontratuak izenpetzea eta fakturretan modu egokian zehaztea fakturaturiko zenbatekoak zeri dagozkion.*

- *Udaletxean izatea aldi bakoitzerako aseguru poliza gaurkotuak.*

VI.5. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

Aurrekontua 46 milioi pezetakoa da, eta betetzeak 42 milioi egin du, hau da, kapituluaren ehuneko 92, eta udalak aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 11. Aurrekoarekin alderaturik ehuneko 25eko jaitsiera izan du, batez ere 2000ko ekitaldian transferentzia arrunt gisa kontabilizatu zirelako Berriobeitiko Udalari emandako 17 milioi, saldutako orube baten ehuneko 10 kontzejuaren jabetzakoa zelako.

Kontusail nagusiak dira udalak hura osatzen duten kontzejuak emandako diru kopuruak; Berriobeitiko musika eskolarako, udal horrekin izenpeturiko hitzarmenaren arabera, 6,2 milioi, eta oinarriko gizarte zerbitzuen mankomunitaterako 4,2 milioi.

VI.6. INBERTSIOAK

Hasierako aurrekontua 126 milioi pezetakoa zen, eta behin betikoa, berriz, 333 milioikoa; aurrekontu betetzea ehuneko 127koa izan da, hau da, kapituluaren ehuneko 38, eta udalak aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 33.

Betetzearen portzentaje txikiaren arrazoia da bete gabeko kontusailak izatea.

Hartutako laginetatik, honakoa nabarmentzen dugu:

Berriobeitira joateko errepidea zuzenean adjudikatu zitzaion BB1 sektorearen urbanizazioaren adjudikazioa hartu zuen enpresari berari, presa zela-eta, baina ez dago justifikaturik ez presa ez eta obraren zuzeneko adjudikazioa ere, eta ez da ageri gainera obra horren euskarri den kontraturik.

Añezkarko Kontzejua urbanizatzeko obra, berriz, adjudikazio espediente bat izan da, eta enpresa batek bakarrik parte hartu du, adjudikazio hartzaile suertatu dena alegia. BB1 sektoreari dagokionez, akatsak antzeman dira espedientearen tramitazioan, esate baterako administrazio klausulen plegua onestea espedientearen sarturiko pleguan ageri den exekuzio aurrekontuaz bestelako batekin, proiektuari epez kanpo aurkezturiko alegazioak eta exekuzio epea ez betetzea, besteak beste.

Informatikako ekipoen erosketari buruz, esan beharra dago ez direla beti hiru eskaintzak eskatzen. Gehien bat ANIMSARI erosten zaizkio.

Honako hau gomendatzen dugu:

- *Kontratuen gaineko araudia betetzea, batez ere espedienteak eratzeari eta eskatutako agiri guztiak (oroit-idazkia, pleguak, txosten juridikoak eta kontu-hartzailetzak, kontratua, etab.) izateari dagokienez.*

- *Obren exekuzioa moldatzea haien aurrekontua egiten den ekitaldietara, bete gabeko kontusailik izan ez dadin.*

VI.7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK

Kapitulu horrek ez zuen hasierako aurrekonturik. 4,3 milioi ordaindu dira, Berriobeitiko Kontzejuari eginiko azken ordainketarenak, bi erakundeena zen lursail bat 2000. urtean saldu ondoren. 2001ean azken epea kobraturik, zegoena eman zitzaion kontzejuari, baina ez zen egin aurrekontu-ko aldaketa.

Aurrekontuen arloko arauak modu egokian aplikatzea gomendatzen dugu, eta ordainketa egin aurretik aurreikusi gabeko dirusarrerak kobratzeak eragindako kredituak sortzea.

VI.8. AKTIBOEN ALDAKETAK

Epe finkora ezarritako diru kopuru batena da - 87 milioi pezeta- eta ez da udalaren balantzean agerrarazi.

VI.9. PASIBOEN ALDAKETAK

5 milioiko gastu bat du, maileguen amortizazioari dagokiona eta 117 mila pezetako interesak dauden barnean.

2001eko abenduaren 31n, udalak dituen bi maileguen zor bizia 54 milioikoa da.

VI.10. TRIBUTUEN BIDEZKO DIRU-SARRE-RAK

Hauxe da kapitulu horien aurrekontu betetzea:

(pezetak, milioitan)

	Hasierako aurrekontua	Aurrekontu bateratua	Betetako aurrekontua
IZuzeneko zergak	154	154	168
Zeharkako zergak	50	50	100
Tasak	11	11	10
Guztira	215	215	278

Ikus daitekeenez, hiru kapitulu horiek ehuneko 129ko betetzea dute, hau da, ekitaldiko dirusarren ehuneko 76.

Hauexek dira kontzeptu nagusiak:

	(betetako aurrekontua, pezetak, milioitan)
Hirilur kontribuzioa	58
Zirkulazioaren gaineko zerga	23
JEZ	80
EIOZ	100
Guztira	261

Udalak tarifa hauen arabera igortzen ditu zergak:

Tributua	Ehunekoa/Indizea	
	Udala	Toki Ogasunei buruzko Legea
Hirilur kontribuzioa	0,217	0,10 - 0,50
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	1,40	1 - 1,4
Lurren balio-igoeraren gaineko zerga	-	8 - 20
5 urte bitarte	2,3	2,2 - 3,3
10 urte bitarte	2,2	2,1 - 3,2
15 urte bitarte	2,1	2,0 - 3,1
20 urte bitarte	2,1	2,0 - 3,1
Eraikin, instalazio eta obrak	4	2 - 5

(1) 2001ean indarra zuen legeriari jarraikiz.

Ekitaldi honetan irizpidea aldatu da JEZaren kudeaketan eta kobrantzan, orain arte aurreko urtekoa ordainarazten baitzen eta hemendik aurrera berriz urtean bertan. Hori dela-eta, 2001eko aurrekontuaren likidazioan sarturik daude 2000ko eta 2001eko dirusarrerak, 40na milioioak.

Hurrengo gomendioak emanen ditugu egindako lanaren ondorioz:

• *Urteko erroldak organo eskudunak onestea.*

• *Kobratzeko dauden ordainagiriak dirubilketa agentearen esku aldizka eta modu sistematikoan utzi beharra ezartzea.*

VI.11. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK ETA KAPITALEKOAK

Aurrekontua 41 milioi pezetakoa da, eta betetzeak 46 milioi egin du, hau da, kapituluaren ehuneko 113, eta udalak aitorturiko eskubide guztien ehuneko 12. Aurrekoaren aldean, ehuneko 40ko gorakada izan da, funtsean Toki Ogasunen Funtse ere handitu delako, kontzejuek aholkulari juridikoaren soldata ordaintzeko egiten duten ekarpenarengatik (aurreko urtean abuztutik baizik ez zen egin, hil hartan hasi baitzen lanean) eta Berriobeitira sartzeko errepideko obrarako dirulaguntza kobratu delako –kapital transferentzia moduan kontabilizatu behar zen hori.

Aurrekontua 49 milioi pezetakoa da, eta kapital transferentzien betetzeak 43 milioi egin du, hau da, kapituluaren ehuneko 88, eta udalak ekitaldian aitorturiko eskubide guztien ehuneko 11. Aurreko urtekoarekin alderatuta, ehuneko 92 egin du behera; izan ere, 2000n 500 milioi pezeta baino gehiago aitortu ziren urbanizazioetarako ekarpen gisa.

2002an, udalak, transferentzia bidez, bederatzi milioi pezetako dirusarrerak kontabilizatu ditu, kutzako irizpidearen arabera kontabilizatzen jarraitzen baitu.

Hona gure gomendioak:

• *Dirulaguntzak sortzapen-irizpidearen arabera kontabilizatzea.*

• *Ekitaldian sortu behar diren dirulaguntzak aurrekontuetan jasotzea.*

• *Dirulaguntza arruntak eta kapitalekoak dagozkien kapituluetan kontabilizatzea.*

VI.12. FINANTZA-EGOERA.

Ondoko taulan udalaren 2001eko adierazleak erakusten dira, eta aurreko ekitaldiko datuekin alderatzen dira:

Adierazleak	2001 ⁽¹⁾	2000 ⁽²⁾
Aurrekontu-superabit/defizita (milioiak)	3	247
Aurrekontu-superabit doitua (milioiak)	34	188
Biztanle bakoitzeko dirusarrerak (pezetak)	318.532	784.097
Gastuak biztanleko (pezetak)	316.322	580.664
Biztanleko finantza-zama (pezetak)	4.959	6.063

Biztanleko tributu bidezko dirusarrerak (pezetatan) 229.245	156.561
Kobrانتzen betetzea (ehunekotan)	94 81
Ordaintzen betetzea (ehunekotan)	94 84
Zorpetze-maila (ehunekotan)	1 3
Zorpetze-muga (ehunekotan)	51 32
Zorpetze ahalmena	50 29
Aurrezki garbia (ehunekotan)	49 29
Langileria-indizea (ehunekotan)	18 7
Inbertsio-indizea (ehunekotan)	34 77
Dirulaguntzekiko mendetasuna (ehunekotan)	23 63

1. Kalkulua egiteko, 2000rako eta 2001erako 1.213 biztanleko populazioa hartu da.

2. Fiskalizatu gabeko ekitaldia

Azterketa horretatik ondokoa azpimarratu behar dugu:

- Berribeiteko udala 2000ko ekitaldian 247 milioiko superabita izatetik 2001ean 3 milioiko superabita izatera iragan da. Aldaketa hori BB1 sektoreko urbanizazioaren obra finantzatzean izaniko desbideraketek zor zaie; horrenbestez, desbideraketa horiek aintzat hartu ez eta aurrekontu emaitza doitua aztertzen bada, 2000n 188 milioikoa izatetik 2001ean 34 milioikoa izatera iragan dela ikus daiteke; behera egite hori zor zaio, batez ere, 2000n lursailak saldu ondoren izaniko 162 milioi pezetako dirusarrera bati.

- Biztanleko dirusarrerek ehuneko 59 egin dute behera, batez ere lursailen salmentaren ondoriozko dirusarrerengatik eta 2000ko ekitaldian 537 milioi pezetako urbanizazio kuotak sortu izanarengatik. Biztanleko dirusarrerek ehuneko 46 egin dute behera, batez ere 2000ko ekitaldian BB1 sektorean eginiko urbanizazioko obren ondorioz.

- 2000tik 2001era dirusarreretan eta gastuetan izaniko beherakada horrek, 2000n eginiko urbanizatzeko obren eta haren finantziakzioa ekitaldi horretan sortu izanaren ondoriozkoa denak, berekin ekarri zuen inbertsio-indizearen ehuneko 43ko beherakada, bai eta dirulaguntzen mendetasunaren ratioa ehuneko 40 gutxitzea ere.

- Biztanleko finantza-zamak ehuneko 18 egin du behera, 2001ean kreditu gutxiago erabili delako; horrek berekin ekarri du interes gutxiago ordaindu behar izatea.

- Biztanleko tributu-dirusarrerek ehuneko 46 egin dute gora, batez ere JEZarengatik (2001eko ekitaldian 2000koa sartzen da), EIOZa 36 milioi handiagoa izan delako.

- Kobrantzen eta ordaintzen betetzeak hobera egin du 2001ean aurreko ekitaldiaren aldean, ehuneko 13 eta 10 hurrenez hurren.

- Zorpetze-maila ehuneko bi jaitsi da, ehuneko hirutik ehuneko batera, kreditu gutxiago erabiltzearen ondorioz 2001ean sortutako interesak gutxiago izan direlako.

- Udalaren zorpetze-muga, 2001eko ekitaldian, ehuneko 51 da, aurreko ekitaldikoa baino ehuneko hemeretzi gehiago. Zorpetze-mugaren gora egite hori zor zaie, batez ere, tributu-sarrera gehiago izateari eta, neurri txikiagoan, zorpetze-maila jaitsi izanari.

- Aurrezki garbia aurreko ekitaldian ehuneko 29 izatetik 2001ean ehuneko 49 izatera iragan da. Ratio horrek erakusten du Berribeiteko Udalak aurre egin ahal izan diela funtzionamendu gastuei eta finantza zamari baliabide arruntak erabiliz.

- Langileria gastuaren indizeak ehuneko 11 egin du gora, batez ere kontratazio berriengatik (zuzenbideko lizentziatu bat, aparejadore bat eta zerbitzu anitzetarako peoi bat) eta, baita ere, A eta B maila ehuneko 35eko osagarria ezarri zaie-lako.

2001eko abenduaren 31ko finantza egoerari dagokionez, ondokoak azpimarratu behar ditugu:

(pezetak, miliotan)

Adierazleak	2001
Diruzaintzako gerakina	270
Epe luzeko zorra	54

Diruzaintzako gerakina bere osoan gastu orokorrak finantzatzeko da, eta ez dago inongo gasturi atxikirik.

2000ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakina 270 milioi pezetakoa da, eta honako hauen emaitza da: kobratzeke dauden 46 milioi pezetako eskubideak, ordaintzeke dauden 26 milioi pezetako obligazioak eta 249 milioi pezetako fondo likidoak. 12 milioi pezeta kobratzen zailtzat jotzen dira.

Berribeiteko Udalak finantza-egoera ona dauka. Diruzaintzako gerakinak finantza-behar guztiak betetzen ditu; hori dela eta, ez du zentzurik bi kreditu kontu izatea 54 milioi pezetako zor biziarekin, erabili ezean interesak sortzen dituztenak, atxiki gabeko 270 milioi pezetako diruzaintzako gerakina baduelako. Gainera, 87 milioi pezetako ezarpen bat badago.

Hurrengo taulan, Berribeiteko Udaleko 2001eko informazioa alderatuta agertzen da,

hainbat ratori dagokionez, Nafarroako populazio-tarte bereko udalek 1999rako izan zuten batez bestekoarekin¹.

Ratioak	1001etik 3000ra biztanlera bitarteko udalak, 1999an	Berrio- beiti 2001
Biztanle bakoitzeko gastuak (pezetatan)	70.923	132.141
Biztanle bakoitzeko dirusarrera arruntak (pezetatan)	101.158	266.040
Biztanle bakoitzeko tributu-dirusarrerak (pezetatan)	51.681	229.245
Zorpetze-muga (ehunekotan)	32	51
Zorpetze-maila (ehunekotan)	9	1
Aurrezki garbia (ehunekotan)	22	49

Alderaketa horrek dituen mugak kontuan izanik², honakoak azpimarratu nahi ditugu:

- Gastu arruntak eta dirusarrera arruntak populazio-tarte bereko udalen batez besteko gastu arruntak eta dirusarrera arruntak baino handiagoak dira, ehuneko 86 eta 123 hurrenez hurren.

- Biztanle bakoitzeko dirusarrerak batez bestekoa baino 178.000 pezeta handiagoak dira; hori, halere, 2001eko ekitaldian sarturiko 2000ko eta 2001eko JEZari eta 2001eko ekitaldiko EIOZaren igoera handiari zor zaie.

- Berribeiteko Udalaren zorpetze-muga eta -ahalmena Nafarroako biztanle tarte bereko udalen batez bestekoa baino askoz ere handiagoak dira. Halaber, Udalaren zorpetze-maila baxuagoa da Nafarroako biztanle-tarte bereko udalen batez bestekoa baino.

VI.13. EGOERAREN BALANTZEA

Egoeraren balantzea kontabilitate sistemak berak ematen du automatikoki, baina ez da erabil-

tzen kudeaketarako kontabilitate egoera-orri moduan; hori dela eta, ez da berrikusten, eta ondoko akatsak dauzka:

- Ez dago, berez, inbentariarik. Balantzearen ibilgetuaren zenbatekoa da sistema sortu zenetik gastuen eta dirusarreraren aurrekontuetako seigarren kapituluetan (inbertsioak, inbertsioen besterentzea) metatzen joan dena. Ez dira ondasunen gaineko amortizazioak egiten.

- Aurrekontuaz kanpoko zordunak eta hartze-kodunak ez datoz bat aurrekontuez kanpoko egoeretakoekin, eragiketen BEZa erregistratzeko moduarengatik.

- Balantzean ez dira sartzen eperako ezarpeneko 87 milioiak.

Balantzearen saldoak berrikustea gomendatzen dugu; aurrekontuaren exekuziotik edo kontabilitateko beste egoera-orri batzuetatik ondorioztatutakoekin bat etorri behar du, kudeaketarako tresna gisa erabili ahal izan dadin.

VI.14. HIRIGINTZA

Udala 1991n sortu zenean, zortzi kontzejuk hirigunea mugatuta zeukaten, eta Aitzoain eta Artikako kontzejuek beren arau subsidiarioak zeukaten.

Urte hartan zortzi kontzejuentzako arau subsidiarioak enkargatu ziren. 1995ean onetsi ziren.

Urte berean, hiru agiriak batu ondoren eta aurrekeztutako aldaketak ikusita, udal plana egitea erabaki zen; azkenik 2001eko irailean hartu zuen indarra.

Arau subsidiario horiekin, udalerrian hirigintza jarduera handia izaten ari da; ondoko taulan laburbildu ditugu haren erakusgarri nagusiak:

(1) Datu hauek Toki Administrazioako Departamentuak emandakoak dira, eta ganbera honek Toki Sektore Publikoari buruzko txostenean eman zituen argitara.

(2) Gogoratzen dugu, bereziki, zerbitzu publikoak emateko modua eta kalitatea.

Plan partzialak.

MOGOTEAK			BB1	BB2	1. urtea
Guztizko azalera (m ² -tan))			498.469	129.909	110.000
Etxebizitza kopurua			1.800	195	168
Urbanizatzeko aurrekontua (pezetak, milioitan)			3.500	625	
Kudeaketa	Konpentsazioa		Lankidetz.	Konpentsazioa	Konpentsazioa
Udalaren	- Berekia	% 4	% 4	% 4	
partaidetza	- Lagapena	% 10	% 10	% 10	% 10
Egoera	- Behin betiko plana onetsi da		- Behin betiko plana onetsi da	- Behin-behineko plan partziala onetsi da	- Behin betiko plana onetsi da
	- Urbanizazioa eta birzatiketa hasiera batean onestea		- Urbanizazioa exekutatu da		- Urbanizazioa eta birzatiketa hasiera batean onestea

Hirigintza jarduera honek erakusten digu epe laburrean Berriobeitiko Udalak zortzi eta hamar mila biztanle inguru izanen dituela.

Zalantzarik gabe, populazioaren hazkunde handi horrek berekin ekarriko du, ezinbestez, udalak eman beharko dituen zerbitzu berrien aurrean edo egun ematen dituenak areagotzeko, egun dauzkan beharrianak aldatzea.

Bestalde, udal hau aurreko banantzetik sorturiko beste bi udalen (Berriozar eta Antsoain) eta Iruñeko hiriaren mugakidea da.

Horrek guztiak aukera gehiago eskaintzen ditu, herritarrei zerbitzuak emateko moduan: bitarteko propioekin bakarrik egitea, udalen artean lankidetzan aritzea eta udalen fusio bera ere bai.

Hori dela eta, gure ustez udalaren etorkizuneko funtsezko gauza izanen da etorkizun hurbila


nolakoa izanen den ezarriko duen plan bat edukitzea, haren arabera neurriak hartzen joateko, behar diren bitartekoak eskura izateko behar direnean.

Hartara, zehazki, hezkuntza, osasun, gizarte, kultura, kirol, administrazio, garraio eta abarretan zein beharrian berri izanen diren zehaztu beharko da. Eta zerbitzu horiek emateko erarik egokiena bilatu beharko da, kontuan hartuta beti udalak zortzi kontzeju dituela.

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan honen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izaipideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko urriaren 31n

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

1. eranskina: Berriobeitiko Udalaren organigrama 2001-12-31n

A.A.: Administrazio Araubidea

Funtzionarioak: 2 (administrari ofizial bat eta zerbitzu anitzetako langile bat)

Lan-kontratudunak: 8 (4 finko eta 4 behin-behinekoak)

Iturria: Geuk egina Praxisen organigramarekin (0-1) eta udaletxearen datuekin.

II. eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa

- Diru-sarreraren betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak (1. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$

BERRIOBEITIKO UDALEKO ALKATEAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

NAFARROAKO COMPTOS GANBERAK EGINIKO
TXOSTENARI BURUZKO AZALPENAK ETA
PROPOSAMENAK

SARRERA

2002ko irailaren 4an udaleko erregistroan Berriobeitiko Udalaren 2001eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostenaren zirriborroa sartu zen, aldaketak egin zitezkeen txosten bat, horrenbestez. Udala sortu zenetik izandako funtzionamendu eta kudeaketa alderdi ezberdinei buruzko historia labur bat egin ondoren, adierazten da arau indardunaren zenbait ez-betetze antzeman direla; hain zuzen, ere ondoko alderdietan:

- Aurrekontuen onespena.
- Obren espedienteak.
- Lan kontratupeko langileen kudeaketa eta kontratazioa.

Txosten berean adierazten da udala hazkunde fase batean dagoela; horrek finantza egoera lasaia edukitzeko aukera eman dion arren, zenbait tresna administratibo eta kudeaketaren arloko eskuratu behar ditu etorkizun hurbilari aurre egin ahal izateko zuzen funtzionatzeko bermea duela. Horretarako, ondokoak egiteko gomendioa ematen da:

- Lan kontratupeko langileen egoera erregulartzatzea.
- Plantilla egokitzea lanpostuen errealitatera.
- Egoeraren balantzea berrikustea eta kontusailetan sartu udalaren aktibo eta pasibo guztiak.
- Zerbitzuak eta haiek emateko modua zehazteko jarduketa plan bat egitea.

OINARRIAK

Txostenean adierazitako ez-betetzeak justifikatzeko gogoetatan nahiz azalpenetan sartu gabe, zeren eta haien arrazoiak iraganekoak baitira, nahiz eta orainaldian ere eragina izan, udal honek Comptos Ganberak txostenean egoera agertzeraz emateko eginiko ahalegina eskertu nahi du, eta aintzat hartu ditu adierazitako gomendioak, antzemandako akatsei ahal bezain laster konponbidea emateko. Horretarako, ondokoak egiten dira:

1. Aurrekontuak onestearen arloan: Toki ogasunei buruzko Foru Legean indarra duten arauak hartuko dira aintzat urteko aurrekontua prestatu eta onesteko garaian.

2. Obra-espedienteen arloan: Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legearen ondotik indarra duten arauak hartuko dira aintzat.

3. Langileak kontratatzearen arloan: Kontratazio berriei dagokienez, udalak Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko erregelamenduari buruzko 113/1985 Foru Dekretuan xedatua hartuko du aintzat. Hain zuzen ere, une hauetan langileak kontratatze hiru hautapen-prozesutan ari gara, eta horiei 2001eko enplegu eskaintza gehitu behar zaie.

Gaur egun kontraturiko langileei dagokienez, haiei buruz dauden arauak betetzen zailak dira, zeren eta lanpostuak lehiaketa publikora ateratzea Langileen Estatutuan ezarritakoaren aurkakoa bailitzateke; bestalde, plantillako langile finko bihurtzeak administrazio publikoetako kontratazioaren arloko oinarritzko printzipioak urratuko lituzke. Ziurgabetasuneko egoera honek plantilla behar bezala arautzeko edozein prozesu gerarazten du, nahiz eta udalbatzak langileen egoera egonkortzeko borondate argia eduki. Hori guztia dela eta, entitate hau harremanetan jarri da abokatuen bulego batekin, iraganean ustez egindako kontratazio irregularretarako konponbideak bilatzeko.

4. Udalak jarduketa plan bat egiteari dagokionez, entitate honek argi du bere populazioaren hazkundeak epe laburrean ekar dezakeen egoeraren konplexutasuna eta zenbait arazo ere sortuko direla; izan ere, gaur egun 1.300 biztanle izate-tik bost urteko epean 6.000 biztanle izatera iraganen baita. Hori dela eta, joan den urtean "Praxis" enpresaren zerbitzuak kontratatu zituen lehiaketa publikoan; enpresa horrek, dagoeneko, entitateak beharko dituen langileen profilari eta kopuruari buruzko azterlan bat egin du. Era berean, langile guztiak hartzen dituzten administrazio eta kudeaketa arloko zenbait prozedura abiarazi dira. Ekintza horrek Nafarroako Gobernu-toki Administrazio-Departamentuaren babesa eta laguntza dauka. "Praxis" enpresak eginiko lanari buruzko txostena erantsi da.

ONDORIOAK

Txosten honetatik ondoriozta daitekeen bezala, udal honek Comptos Ganberak eginiko kontrol eta aholkularitza lanaren ondoriozko txosteneko gomendioak bete nahi ditu, eta ahal bezain laster aipaturiko akatsak ahal bezain ongi zuzendu nahi ditu, lehen adierazitakoak eginez. Horrekin guztia-ekin udala behar den baldintzatan utzi nahi dugu, indarreko arauak betetz, modu orekuan garatzen joan dadin eta epe laburrean eta ertainean izanen dituen erro-neki aurre egin ahal izan diezaie.

“Praxis” enpresak Berriobeitiko Alkatetzarako egin zuen txostena erantsi dizut, ezagut dezazun.

Berriobeiti, 2002ko urriaren 9an.

Alkatea. Sinatua: José Larrañeta Ilundáin jauna.

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA.

Comptos Ganberak Berriobeitiko Udalak aurkeztutako azalpen eta proposamenei emandako erantzuna.

2002ko urriaren 24an, Nafarroako Comptos Ganberan Berriobeitiko Udalaren idazki bat sartu zen, “Nafarroako Comptos Ganberak eginiko txostenari buruzko azalpenak eta proposamenak”, izenburukoa.

Hura irakurrita ondoriozta daiteke udalak, oro har, txostenaren edukia onartzen duela eta aurkitutako akatsak konpontzeko borondatea duela; izan ere, horretarako bidean daudela adierazten da bertan.

Gure aldetik, azpimarra jarri nahi dugu erreforma horiek egiteko beharrean, hori baita aurretik dagoen erronka nagusiari aurre egiteko udala egoerarik onenean egoteko biderik onena, Berriobeitik, hirigintza jardueraren ondorioz, hazkunde handia izanen baitu epe laburrean.

Hori guztia dela eta, aurkeztutako alegazioak txostenean erantsi eta txostena behin betikotzat jotzea erabaki dugu.

Iruñean, 2003ko urriaren 31n.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Caparrosoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 19an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak eginiko Caparrosoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Caparrosoko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2001eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (27. or.).
- II. Helburua (27. or.).
- III. Norainokoa (27. or.).
- IV. Iritzia (28. or.).
 - IV.1. 2001eko aurrekontuaren likidazioari dagokionez (28. or.).
 - IV.2. 2001eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (28. or.).
 - IV.3. Legezkotasuna (28. or.).
 - IV.4. Finantza- eta ekonomia-egoera 2001eko abenduaren 31n (28. or.).

V. Finantzen egoera-orriak (28. or.).

VI. Caparrosoko Udalari buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (33. or.).

VI.1. 2001eko aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (33. or.).

VI.2. Finantza-egoera 2001eko abenduaren 31n (35. or.).

VI.3. Gorabeherak (36. or.).

VI.4. Administrazio-kontratazioa (37. or.).

VI.5. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (37. or.).

VI.6. Hirigintza (38. or.).

I. eranskina. Caparrosoko Udalaren organigrama, 2001eko plantilla organikoaren arabera (40. or.).

II. eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa (41. or.).

Caparrosoko Udaleko alkateak aurkeztutako alegazioak (42. or.).

Aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emaniko erantzuna (43. or.).

I. SARRERA

2001eko ekainaren 11n, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak eskatu-rik, erabaki zuen Nafarroako Comptos Ganberari eskatzea Caparrosoko Udalari buruzko fiskalizazio txosten bat egin zezan.

Eskaera hori Comptos Ganberaren 2002. urterako lan plangintzan sartu zen.

Caparrosoko Udalak, Erriberriko Merindadean baitago, 2.433 biztanle zituen 2001eko abenduaren 31n, udalak emaniko datuen arabera.

Udalak ez du inolako erakunde autonomorik eratu bere jarduera burutzeko, eta aurrekontu bakarra du.

Udalak ondoko mankomunitate eta udal batasunetan hartzen du parte:

- Goi Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea.
- Erriberriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Tafallako Eskualdeko Kirol Elkartea.
- Goi Aragoiko Ur Ekarriaren Mankomunitatea.
- Eder Partzuergoa.

Udalak 2001ean dituen kopururik garrantzitsuenak honako taula hauetakoak dira:

Onarturiko betebeharrak (pta., milakotan)	Aitortutako eskubideak (pta., milakotan)	Langileak, abenduen 31n
459.444	728.891	11

II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/2001 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbarari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, fiskalizatu egin ditugu bai Caparrosoko Udaleko kudeaketa ekonomiko-finantzarioa bai udal horren nahiz bere erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko gastu eta diru sarreraren aurrekontuen exekuzioa.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak eta administrazio-kontratazioa eraentzen duten arauak osatzen dute; baita Nafarroako toki

enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gairontzeko araudiak ere.

Kontabilitate eta aurrekontu arloan, araubide juridikoa honako hauetan ezarritakoa da: 270, 271, 272 eta 273 zenbakiak dauzkaten foru dekretuak, guztiak 1998ko irailaren 21ekoak, zeinak aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta Nafarroako toki administrazioarako kontabilitateari buruzkoak baitira. Horien aplikazioa nahi-etazkoa da 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Caparrosoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2001eko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2001eko abenduaren 31ko ondare-egoerak duen agerpena, aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun printzipioari egokitzen ote zaion.

d) Udalaren finantza-egoera 2001eko abenduaren 31n.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, bere jarduketa-programari jarraikiz, Caparrosoko Udalaren (aurrerantzean, "Udala") eta bere erakunde autonomoen 2001eko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka, Toki kontabilitate publikoaren plan orokorrari jarraikiz. Plan hori egokitu da irailaren 21eko 271/1998 Foru Dekretura –Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontu egituraren alorrean garatzen duen horretara–, eta Nafarroako Toki administrazioarako kontabilitate jarraibide orokorra onetsi zuen irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretura.

Lana diru-sarrera eta gastuei dagozkien atal ekonomikoen eta ondare-masa ezberdinen ikuskapenean gauzatu da, eta antolamendu, kontabilitate eta barne-kontrolako gaiak aztertu dira.

Hirigintza arloari dagokionez, planeamenduen betetzeari buruzko ikuskapen bat egin dugu, eta haren aldaketak eta aurreikuspenen betetze-maila aztertu ditugu.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipioei eta arauari jarraituz eta, baldintzen arabera, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz burutu dugu lana.

Lanaren muga gisa, aipatu behar da udal inbentarioaren garapen eskasak eta aplikazio informatikoaren parametroak ezartzerakoan izandako akats batek ezinezko egin dutela 2001eko ekitaldiko saldoak sartzea, 2000ko ekitaldiko kontabilitatea ixtetik datozenak, eta horrek eragina izan duela Udalaren ondare-egoerari buruz egin dugun azterketan.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen antolaketa, barne kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkin eta gomendioak bildu ditu txostenak.

Azterketa lana 2002ko ekainean egin da.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko langileei.

IV. IRITZIA.

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Caparrosoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2001eko ekitaldiko finantzen egoera-orriak aztertu ditugu. Udalaren ardurapean eginak dira, eta txosten honetako V. atalean jaso ditugu, laburbilduta.

Gure azterlanean Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organoen Koordinazio Batzordeak sektore publikoko kontu-ikuskaritza egiteko onetsiriko arau eta prozedurak erabili ditugu.

Egindako azterketaren emaitza gisa, ondoko iritzia eman behar dugu:

IV.1. 2001eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI DAGOKIONEZ

Honekin batera doan 2001eko aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orriak egoki agertzen du fiskalizaturiko ekitaldian Udalak eginiko eragiketa-multzoa.

IV.2. 2001eko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

2001eko abenduaren 31ko egoeraren balantzea dela eta, ondoko mugak izan ditugu:

Udalak erabiltzen duen programa informatikoaren parametrizazio arazo batzuen ondorioz, ondoko gorabeherak izan dira:

a) Ondareak zero saldoa erakusten du, emaitzak aplikatzeke dauden kontusailen epigrafean sartzen baitira.

b) Ibilgetu materialek 2001eko ekitaldian eginko inbertsioak besterik ez dituzte jasotzen,

2001eko ekitaldia irekitzeko saldoak, 2000ko ekitaldia ixtetik datozenak, kontuan hartu gabe.

c) Halaber, "epe luzeko zorrak" kapituluak 2001eko abenduaren 31n ekitaldi horretan eginiko printzipalaren amortizazioak baizik ez zituen bil-tzen, irekitze-saldoa erregistratu gabe.

Udal inbentarioa gaurkotu gabe dago.

Norainokoak dauzkan muga horien garrantzia dela eta, ezinezkoa zaigu udalak 2001eko abenduaren 31n zuen ondare-egoerari buruz iritzia ematea.

IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Udalaren jardura ekonomiko-finantzarioa legezotasun-printzipioari jarraituz burutu da.

IV.4. FINANTZA- ETA EKONOMIA-EGOERA 2001eko ABENDUAREN 31n

Caparrosoko Udalak 2001eko abenduaren 31n finantza-egoera egokia dauka: 334 milioi pezetakotako diruzaintzako gerakina, ehuneko 34 inguruko aurrezki gordina eta 342 milioi pezetakotako epe luzeko zorra, 358 milioi pezetakotako diruzaintzako funtsekin, hain zuzen ere udalak 2001eko ekitaldian aitorituriko eskubideen ehuneko 49 egiten dutenak.

Aurreko fiskalizazio txostena egin zenetik, 1992. urtea, iraganiko denbora dela-eta, ez da egin gomendioen jarraipena. Nolanahi ere, udalak izandako hobekuntza nabaria azpimarratu behar dugu.

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

Jarraian, Udalaren eta bere erakunde autonomoen finantzen egoera-orriak azalduko ditugu. Azalpena erosoan izan dadin, aipamena honako hauetara mugatuko dugu:

- Udaleko gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoa.

- Udalaren gastuen aurrekontuaren likidazioa, sailkapen ekonomiko eta funtzionalaren arabera-koa.

- Udaleko egoera-balantzea, 2001eko abenduaren 31koa.

- Udalaren 2001eko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina.

Caparrosoko Udala, 2001

Dirusarreraren aurrekontuaren betetzea

Kap.	Hasierako aurreikuspena (pezetak, milakotan)	Aldaketak (pezetak, milakotan)	Behin betiko aurreikuspena (pezetak, milakotan)	Aitortutako eskubideak (pezetak, milakotan)	Aitortutako eskubideak (eurotan)	Kobratutakoa (pezetak, milakotan)	Kobratzeko (pezetak, milakotan)	Betetakoa (%)	% aitorturiko guztia
1	88.000	–	88.000	104.693	629.215	97.273	7.420	% 119	% 15
2	15.000	–	15.000	16.629	99.944	16.629	–	% 111	% 2
3	25.785	–	25.785	24.580	147.727	21.975	2.605	% 95	% 3
4	87.330	–	87.330	89.658	538.857	89.529	129	% 103	% 12
5	54.690	–	54.690	54.171	325.574	50.865	3.306	% 99	% 8
6	200	–	200	340	2.043	340	–	% 170	% –
7	282.525	21.201	303.726	138.820	834.327	138.086	734	% 46	% 19
8	–	57.153	57.153	–	–	–	–	% –	% –
9	181.811	–	181.811	300.000	1.803.036	300.000	–	% 165	% 41
Dirusarrerak, guztira	735.341	78.354	813.695	728.891	4.380.723	714.697	14.195	% 90	% 100

Gastuen aurrekontuaren betetzea

Kap.	Hasierako aurreikuspena (pezetak, milakotan)	Aldaketak (pezetak, milakotan)	Behin betiko aurreikuspena (pezetak, milakotan)	Aitortutako betebeharrak (pezetak, milakotan)	Aitortutako betebeharrak (eurotan)	Ordaindutakoa (pezetak, milakotan)	Ordantzeko dagoena (pezetak, milakotan)	Betetakoa (%)	% aitorturiko guztia
1	71.150	(586)	70.564	67.939	408.323	67.396	543	% 96	% 15
2	88.900	9.921	98.821	99.046	595.278	94.047	4.999	% 100	% 22
3	21.266	–	21.266	19.924	119.744	19.924	–	% 94	% 4
4	22.615	–	22.615	25.055	150.584	20.392	4.663	% 111	% 6
6	513.000	69.019	582.019	217.812	1.309.075	182.016	35.796	% 37	% 47
9	18.410	–	18.410	29.668	178.310	29.668	–	% 161	% 6
Gastuak, guztira	735.341	78.354	813.695	459.444	2.761.314	413.443	46.001	% 56	% 100

2001eko aurrekontuaren betetzea, kode funtzional/ekonomikoaren arabera (pezetak, milakotan)

Funtzio taldea	Azalpena	Langileen gastuak.	Ondasun aruntak eta zerbitzuak	Gastu finantzarioak	Transferentzia aruntak	Inbertsio errealak	Finantza-pasiboak	Aitorturiko betebeharrak, guztira	Guztizk. gain. %
1	Izaera orokorreko zerbitzuak	22.724	22.336	-	110	563	-	45.733	% 10
2	Babes zibila eta herritarren segurtasuna	-	-	-	-	19.132	-	19.132	% 4
3	Gizartearen segurtasuna, babesa eta sustapena	27.393	3.190	-	9.585	-	-	40.168	% 9
4	Izaera sozialeko ondasun publikoak sortzea	14.180	61.686	-	5.583	189.990	-	271.439	% 59
5	Izaera ekonomikoko ondasun publikoen ekoizpena	-	10.153	-	9.313	6.272	-	25.738	% 6
6	Izaera orokorreko arautze ekonomikoa	3.642	1.681	-	-	-	-	5.323	% 1
7	Jarduera ekonomikoa eta sektoreen erregulazioa	-	-	-	464	1.855	-	2.319	-
0	Zor publikoa	-	-	19.924	-	-	29.668	49.592	% 11
Guztira		67.939	99.046	19.924	25.055	217.812	29.668	459.444	% 100

Egoeraren balantzea 2001eko abenduaren 31n

AKTIBOA	Pezetak, milakotan	Euroak, milakotan	PASIBOA	Pezetak, milakotan	Euroak, milakotan
IBILGETUA	217.472	1.307	ONDAREA	-	-
Ibilgetu materiala	188.318	1.132	Ondarea	-	-
Lurrak eta ondasun naturalak	(340)	(2)			
Eraikinak	165.370	994	KAPITAL-DIRULAGUNTZAK	128.014	769
Makinak, instalazioak eta tresneria	1.906	11			
Altzariak	17.291	104			
Instalazio espezializatuak	4.091	25			
Erabilera orokorreko inbertsioak eta ondasunak	29.154	175	EPE LUZEKO ZORRAK	(29.668)	(178)
Lurrak eta ondasun naturalak	29.154	175	EPE LABURREKO ZORRAK	363.401	2.184
			Epe laburreko maileguak	300.000	1.803
			Aitorturiko betebeharren hartzekodunak	46.001	276
ZORDUNAK	38.973	234	Ente publikoak, kobratzeko eskubideengatik	5.944	36
Aitorturiko eskubideen zordunak	18.111	109	Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak	11.456	69
Entitate publikoak	18.314	110			
Aurrekontuz kanpoko beste zordun batzuk	2.549	15	APLIKATZEKO DAUDEN KONTUSAILAK	64.207	386
			Aplikatzeko dauden bestelako kontusailak	64.207	386
FINANTZA KONTUAK	358.082	2.152	EMAITZAK	88.573	532
Bankuak eta kreditu-entitateak	358.082	2.152			
AKTIBOA, GUZTIRA	614.527	3.693	PASIBOA, GUZTIRA	614.527	3.693

Diruzaintza-gerakinaren egoera 2001eko abenduaren 31n
(pezetak, milakotan)

Diru-kopuruak	
1. (+) Ekitaldiaren amaieran kobratzeko dauden zordunak	36.656
Dirusarreraren aurrekontukoa. Aurrekontu arrunta	14.194
Dirusarreraren aurrekontukoa. Aurrekontu itxiak	3.917
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	20.862
Ken kobratzeko zailak diren saldoak	(2.317)
2 (-) Ekitaldiaren amaieran ordaintzeko dauden hartzekodunak	(61.075)
Gastuen aurrekontukoa. Aurrekontu arrunta	(46.001)
Gastuen aurrekontukoa. Aurrekontu itxiak	—
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	(15.074)
3 (+) Ekitaldiaren amaieran diruzaintzan dauden funts likidoak	358.082
4 Finantzabide atxikia duten gastuei atxikitako diruzaintzako gerakina	—
6 Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (1- 2 + 3 - 4)	333.663
DIRUZAINZAKO GERAKINA, GUZTIRA	333.663

VI. CAPARROSOKO UDALARI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

VI.1. 2001eko AURREKONTUAREN BETE-TZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK

• 1998ko gastuen eta dirusarreraren aurrekontuak 735 milioi pezetako hasierako kredituak agertzen ditu. Hasierako aurreikuspen horiek hainbat aurrekontu-aldaketa jasan dituzte gastu eta dirusarreretan. Dirusarreei buruzkoak funtsean aurreko ekitaldiko diruzaintza-gerakina gaineratzen heldu dira, hain zuzen ere 57.153 mila pezeta, eta 21.201 mila pezetako kapital transferentziarekin batera, funtsean kiroldegian egindako 62.221 mila pezetako inbertsioa finantzatzeko. Gastuei dagozkien aldaketak heldu dira inbertsio errealetarako kreditu zabaltzetik (69 milioi pezeta egiten dute) eta 10 milioi pezeta inguruko kreditu transferen-

tzia batetik (aipaturiko inbertsioaren kontusaila finantzatzeko dirua). Aldaketa horiek alkatetzaren dekretu baten bidez onetsi dira.

• Behin betiko aurreikuspenek edo aurrekontu bateratuak, beraz, 814 milioi pezeta egiten dute, gastuetan nola dirusarreretan.

• Aitorturiko betebeharren zenbatekoa 459 milioi pezetakoa da, eta horien betetze-maila ehuneko 56koa da; horretarako arrazoi nagusia inbertsioen kapituluaren betetze-maila da –zeina ehuneko 37koa baita; hau da, 364 milioi pezeta gutxiago inbertsioetan-. 2001eko behin betiko aurrekontuan aurreikusi diren eta ekitaldi horretan exekutatu ez diren inbertsiorik garrantzitsuenak, funtsean obren hasiera atzeratzearen ondorioz, honako hauek dira:

(pezetak, milioitan)

	Aurrekontua	Aitortutakoa	Diferentzia
Kultur etxea	200	36	164
Industrialdea	20	2	18
Udal eraikinetako igogailuak	20	-	20
Hondetatzeko palak	12	2	10
Argiteria publikoa	10	-	10
Igerilekua	230	66	164
	492	106	386

Ehunekoetan, honela xehekatzen da gastuen aurrekontua:

Gastuak	Ehunekoak
Funtzionamendukoak	43
Inbertsiokoak	47
Finantza-zamakoak	10
Guztira	100

Ikus daitekeen bezala, gastuen kapituluaren barruan elementurik garrantzitsuenak inbertsio errealetan eginiko gastuei dagozkie, funtsean kiroldegia egiteko obrei, igerileku estali berriari eta kultur etxe berria eraikitzeke eraikin bat erosi izanari.

Funtzionamendu gastuen barruan, garrantzi handiena duena ondasun arruntak eta zerbitzuak erostekoa da, Udalak 2001erako duen aurrekontuaren ehuneko 22 egiten baitu. Epigrafe horren

barruan, material gastuen epigrafea dago; horretan, hornidurek gastu guztien ehuneko 67 egiten dute.

Langileez denaz bezainbatean, 2001eko abenduaren 31n 11 langile ziren Udalean zihardutenak. Hona:

Izaera	Zenbat
Funtzionarioak	(lanpostu huts 1)
Lan-kontratadun finkoa	5
Behin-behinekoak eta programetakoak	2
Guztira	11

Administrazio eta kontabilitateko arloan bost pertsonak lan egiten dute: idazkaria, kontu-hartzailea (lanpostu hutsa), bi ofizial administrari eta administrari laguntzaile bat.

2001eko ekitaldian, Udalak behin-behineko hiru kontratazio egin ditu, zerbitzu anitzetako bi

lanpostu betetzeko eta kontu-hartzailea ordeztzeko. Hiru kasuetan, kontratazioa Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enplegu eskaintza publikoaren bitartez egin zen.

Ez dago hautetsientzako ordainsaririk, nahiz eta dietak ordaintzen diren, 3,6 milioi pezeta hain zuzen. Horietatik, udalbatzako bi kideri eginiko ordainketak daude, 2.029.950 eta 343.530 pezetakoak, hurrenez hurren, alkatetzaren 1999-07-15eko erabakiaren ondorioz.

Ordainketa horiek ez datoz guztiz bat dieten kontzeptuarekin, ez baitago bertaratzeen agiri bidezko justifikaziorik; hobeki sartzen dira egungo arauetan dagoeneko aurreikusirik dauden dedikazio partzialeko edo eskusiboko sistemetan. Hori dela eta, gure ustez udalak udalbatzako kideei eginiko ordainketa horien baldintzak, zenbatekoak eta agiri bidezko justifikazioa arautu beharko lituzke.

• Aitorturiko eskubideei dagokienez, 729 milioi-koak dira, ehuneko 90eko betetze-mailarekin. Horren arrazoiak dira, batetik kapital transferentzien kapituluak izan duen betetze-maila –304 milioi pezetako aurreikuspena eta aitorturiko eskubideak 139 milioi pezetakoak dira, hau da, ehuneko 46ko betetze-maila–, eta bestetik, aurrekontuan egindako aldaketen ondorioak, diruzaintzako gerakinaren bitartez finantzatu baitira.

Ehunekoaren arabera, hauxe da dirusarreraren aurrekontuaren osaera:

Dirusarrerak	Ehunekoak
Tributuen bidezkoak	20
Transferentzien bidezkoak	31
Finantza-izaerakoak	41
Ondarearen ondoriozkoak	8
Guztira	100

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, finantza iturri nagusiak transferentziak dira –aitorturiko 100 pezeta bakoitzeko 31 finantza iturri horretakoak dira– bai eta finantza-dirusarrerak ere, 2001eko ekitaldian zenbait inbertsio finantzatzeko izenpeturiko bi kreditu-polizei dagozkienak; azkenean, horietako gehiena hurrengo ekitaldira aldatu da.

Jasotako kredituei dagokienez, 300 milioi pezetako zenbatekoa, Udalak 2001eko abenduaren 31n kopuru osoa dirusarrera gisa erregistratu du (izan ere, haren 13 milioi pezeta baino ez zituen erabili); horrenbestez, jasotako dirusarreraren kopuruak eta diruzaintzakoak egun horretan eskuragarri zegoen 287 milioi pezetako zenbatekoa islatzen dute.

Ondoko taulan tributu nagusiak eta 2001ean horiengatik aitorturiko zenbatekoak (pezetak, milioitan) azaltzen dira:

Tributua	Zenbatekoa
Zuzeneko zergak	
Landalur-kontribuzioa	5.098
Hirilur-kontribuzioa	71.975
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	14.454
Lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	1.055
Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga	12.111
	104.693
Zeharkako zergak	
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	16.629

Nabarmena da hirilur-kontribuzioaren (72 milioi pezeta) pisu berezia, gainontzeko tributu-figurak erraz gaingitzen baitituzte. Hori zor zaie, bereziki, herrian instalaturiko enpresek ordaindutako kontribuzioei, bai eta 2000. urteko bigarren seihilekoko kontribuzioa, 8 milioi pezeta, sartu izanari ere.

Udalak bildutako zergei dagokienez, ondotik ageri dira Udalak zerga bakoitzean aplikatzen dituen tarifak, Toki ogasunei buruzko Foru Legeak baimendutako gehienekoekin alderaturik:

Tributua	Ehunekoak/adierazlea	
	Udala	Toki ogasunei buruzko Legea (1)
Hirilur kontribuzioa	0,42	0,10 - 0,50
Landalur kontribuzioa	0,7	0,10 – 0,80
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,1	1 - 1,4
Lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	10	8 – 20
• 5 urte bitarte	2,7	2,2 - 3,3
• 10 urte bitarte	2,7	2,1 - 3,2
• 15 urte bitarte	2,5	2,0 - 3,1
• 20 urte bitarte	2,5	2,0 - 3,1
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga	3,5	2 – 5

(1) 2001ean indarra zuen legeriari jarraikiz.

• 2001eko betetzearen egoerak 269 milioi pezetako "aurrekontu superabita" erakusten du, aitorturiko betebeharren eta eskubideen arteko aldearen ondorioz. Udalak ez ditu finantza desbideraketatik eta diruzaintzako gerakin likidoaren bitartezko gastuen finantzatik ondorioztaturiko doikuntzak egiten. Superabita azaltzen da, funtsean, bi poliza kreditutan eskuragarri dagoen 300 milioi pezetako finantza-pasiboaren dirusarrera aitortze-

arekin, nahiz eta 2001eko abenduaren 31n 13 milioi pezeta erabili ziren; izan ere, kreditu horiekin finantzatu behar ziren inbertsioak, egun horretan, erabili gabe egon eta hurrengo ekitaldira aldatu ziren.

- 2001eko abenduaren 31n, ordaintzeke dauden kopuruek, gastuen erresultek, 46 milioi pezeta egiten dute, eta oraingo ekitalditik heldu dira guztiak. Kobratzeko dauden zenbatekoek –dirusarreraren erresultak– 18 milioi pezeta egiten dute, horietatik ehuneko 22 aurreko ekitaldietakoa da.

- 2001eko abenduaren 31n, diruzaintza-gerakina 334 milioi pezetakoa da. Kopuru hori honako honen emaitza da: kobratzeko dauden eskubideak –37 milioi pezeta–, ordaintzeko dauden betebeharrak –61 milioi pezeta– eta funts likidoak –358 milioi pezeta–. 2 milioi pezeta kobratzen zailtzat jotzen dira; guztiak aurreko ekitaldietatik daude kobratzeko.

Diruzaintzako gerakin osoa, 333 milioi pezeta egiten duena, gastu orokorrak finantzatzeko erabili du udalak; izan ere, ez da finantzaketaren balizko desbideraketan kalkulua egin diruzaintzako gerakina kalkulatzeko ondorioetarako; hartara, bada, diruzaintzako gerakinaren barruan atxikiriko funtsak egon litezke; esate baterako, etorkizuneko inbertsioei atxikirik egon eta hasiera batean 2001eko ekitaldirako aurrekontuetan bildutako kreditu polizetatik heldu direnak.

- Azkenik, ondoko taulan erakusten da, ehunekoak erabiliz, 2001eko gastu-aurrekontuaren betetzea, eginkizun ezberdinen arabera sailkatua.

Azalpena	Ehunekoak
Izaera orokorreko zerbitzuak	10
Babes zibila eta herritarren segurtasuna	4
Gizartearen segurtasuna, babes eta sustapena	9
Izaera sozialeko ondasun publikoen ekoizpena	59
Izaera ekonomikoko ondasun publikoen ekoizpena	6
Zor publikoa	11
Izaera orokorreko arautze ekonomikoa	1
Guztira	100

Horiek azterturik, nabarmendu beharra dago udalaren 2001eko gastuaren ehuneko 68 izaera sozialeko ondasun publikoak ekoiztera eta gizarte segurtasun, babes eta sustapeneko zerbitzuetara bideraturik dagoela, udalak ekitaldi horretan eginko inbertsioen ondorioz.

VI.2. FINANTZA-EGOERA 2001eko ABENDUAREN 31n

Ondoko taulan udalaren 2001. urterako ratio edo adierazleak erakusten dira:

Adierazleak	2001 ⁽¹⁾	2000 ⁽¹⁾ (2)
Aurrekontu superabita (defizita) (pezetak, milioitan)	269	(15)
Biztanle bakoitzeko dirusarrerak (pezetatan)	299.585	169.992
Biztanle bakoitzeko gastuak (pezetatan)	188.838	168.514
Biztanle bakoitzeko finantza-zama (pezetatan)	20.383	12.604
Biztanle bakoitzeko tributu-dirusarrerak (pezetatan)	59.968	49.898
Kobrantzen betetzea (ehunekoak)	98	94
Ordainketen betetzea (ehunekoak)	90	99
Zorpetze maila (ehunekoak)	17	11
Zorpetze-muga (ehunekoak)	34	31
Aurrezki garbia (ehunekoak)	17	20
Langileria-indizea (ehunekoak)	15	16
Inbertsioaren indizea (ehunekoak)	47	48
Dirulaguntzekiko mendetasuna (ehunekoak)	31	53

(1) Kalkulua egiteko, 2001erako 2.433 biztanleko populazioa aintzat hartu da eta 2000rako 2.324 biztanleko populazioa, Udalak 2000rako eta 2001erako egindako estimazioei dagozkienak.

(2) Fiskalizatu gabeko ekitaldia.

Azterketa horretatik ondokoa azpimarratu behar dugu:

- 2001eko ekitaldiak 269 milioi pezetako aurrekontu-superabita erakusten du; 2000ko ekitaldian, ordea, 15 milioiko defizita izan zen. Aldaketa soilik ondokoari zor zaio: 2001ean 300 milioi pezetako aurrekontu-dirusarrerak izatea, ekitaldi horretan emandako bi kreditu polizetatik heldu direnak. Eragiketa horietan 13 milioi pezeta gastatu dira; izan ere, finantzatzen diren inbertsioak ez dira ekitaldi horretan egin, datozen ekitaldietara aldatu baitira.

- Biztanle bakoitzeko dirusarrerak ehuneko 76 igo dira eta gastuek ehuneko 12 egin dute gora, eta horrek ere justifikatzen du udalak 2001eko ekitaldian izan duen superabita.

- Biztanle bakoitzeko finantza-zamak ehuneko 62ko hazkundera erakusten du, lehen aipaturiko kreditu polizen ondorioz, zeren eta 2001eko ekitaldian aurrekontu-gastu gisa erregistraturiko muga jaitsi egin baita; horrek berekin ekarriko du bai maileguen amortizazioak bai finantzatzio-eragiketa horietatik heldu diren interesengatikoko gastuak handitzea.

- Biztanle bakoitzeko tributu bidezko dirusarrerak ehuneko 20 hazi dira 2000. urtekoan aldean, funtsean udalean enpresak jartzeagatik hiri kontribuzioek gora egin izanari.

• 2001eko zorpetze maila eta muga aurreko ekitaldikoa baino handiagoa da, eta 2001eko zorpetze maila bere mugatik nabarmen behera dago.

• Aurrezki garbia 2000n ehuneko 20 izatetik 2001ean ehuneko 17 izatera iragan da; horrek esan nahi du 2001eko ekitaldian Caparrosoko Udala gauza izan dela baliabide arruntekin funtzionamendu gastuei eta finantza zamari aurre egiteko.

• Langileria eta inbetsio indizeak ez du aipatzeko moduko aldaketarik izan 2001ean 2000ko ekitaldian izandakoen aldean.

• Dirulaguntzekiko mendekotasunak behera egin du 2001ean, funtsean beste atal batzuk dirulaguntzak baino gehiago handitzearen ondorioz, batez ere finantza-pasiboek gora egin dutelako.

2001eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokionez, hona azalpena (pezetak, milioitan):

Adierazleak	2001
Diruzaintzako gerakina	333
Epe luzeko zorra	613

Caparrosoko Udalak 2001eko abenduaren 31n 287 milioi pezetako epe luzeko zorra dauka, hain zuzen ere etorkizuneko inbertsioak finantzatzeko erabili ez diren kreditu-polizen zatiarengatik.

Aurrezki gordina pasatu da 83 milioi pezetakoa izatetik aurreko urtean 98 milioikoa izatera 2001ean, batez ere eraikin, instalazio eta obren gaineko zergaren dirusarrerak eta hiri-kontribuzioak gora egin dutelako.

Azkenik, ondoko laukian alderatu egiten dira, ratio jakin batzuetarako, Caparrosoko Udalaren 2001eko informazioa eta Nafarroan biztanle-tarte bera ⁽¹⁾ duten udalen 1999ko batez bestekoa.

Ratioak	1.000-3.000 biztanleko udalak 1999	Capa- rroso 2001
Biztanle bakoitzeko gastu arrunta (pezetatan)	70.923	87.120
Biztanle bakoitzeko dirusarrera arruntak (pezetak)	101.158	119.084
Biztanle bakoitzeko tributu-dirusarrerak (pezetatan)	51.681	59.968
Zorpetze-muga (ehunekoa)	32	34
Zorpetze-maila (ehunekoa)	9	17
Aurrezki garbia (ehunekoa)	22	17

Alderaketa horrek dituen mugak kontuan izanik ⁽²⁾, honakoak azpimarratu nahi ditugu:

• Biztanle bakoitzeko gastu arrunta nabarmen handiagoa da antzeko ezaugarriak dauzkaten udalen aldean; biztanle bakoitzeko dirusarrera arruntak ere handiagoak dira.

• Tributu arloko diru-sarrerak, biztanleko, batez bestekoa baino 8.000 pezeta handiagoak dira.

• Caparrosoko Udalaren zorpetze-ahalmena populazio tarte berekoak diren edo antzeko ezaugarriak dauzkaten udalen batez bestekoa baino txikiagoa da.

• Halaber Udalaren 2001eko zorpetze-maila handiagoa da antzeko ezaugarriak dauzkaten Nafarroako udalen batez bestekoa baino.

VI.3. GORABEHERAK

Udalak emaniko informazioaren arabera, gaur egun bi errekurtsio daude erabaki gabe herrilurrak direla eta.

(1) Datu hauek Toki Administrazioako Departamentuak emandakoak dira, eta ganbera honek 1999ko ekitaldiko Toki Sektore Publikoari buruzko txostenean eman zituen argitara.

(2) Gogoratzen dugu, bereziki, zerbitzu publikoak emateko modua eta kalitatea.

VI.4. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal honetan xehekaturik agertuko ditugu, alde batetik, hornidurak erosi eta zerbitzuak emateari buruzko alderdiak eta, bestalde, inbertsioak.

VI.4.1. Hornidurak erostea eta zerbitzuak ematea

Erosketen sistemari buruz eginiko laginketari jarraituz, ondoko gomendio orokorrak egin nahi ditugu:

a) *Udalari aplikaturiko erosketa-prozedura idatziz gauzatzeari, eta aholkularitza juridikoak nahiz udaleko kontu-hartzailetzak araudiari jarraituz bete beharreko eginkizuna berariaz zehaztea.*

b) *Ahaleginak egitea ekitaldi bakoitzak ekitaldian bertan sortutako gastu guztiei euts diezaien.*

c) *Behar diren kontrolak ezartzea gastu guztiak beren izaeraren arabera erregistra daitezen.*

d) *Ahaleginak egitea ordainketen igorpenen gaineko dokumentu guztiak zuzen bete eta sina daitezen.*

Zerbitzuen kontratazioari buruz egindako lanean ikus dezakegu kopuru txikiko zerbitzuen prezazio batzuk badaudela eta haien gastuak errepikaturik daudela; behar diren kontratazio prozedurak erabil zitezkeen haietarako.

Kontratazioari buruzko arauak hertsiki aplikatzea gomendatzen dugu.

VI.4.2. Inbertsioak

Ondoko kontratazio espedienteak berrikusi dira, urte anitzeko haien egozpena alde batera utzita:

(pezetak, milioitan)

Espedientea	Prozedura Adjudikazioa	Gastua, 2001 (*)	2001/121/31n metaturiko gastua (*)	Obraren exekuzio- portzentajea
Ezpondak berrezartzea	Negoziatua	18	18	Amaitua
Kiroldegia	Lehiaketa	62	167	Amaitua
Igerileku estalia	Lehiaketa	66	66	% 24

(*) Kasu bakoitzaren arabera, obrak gain teknikarien ordainsarien kostua barne hartzen du.

Aztertutako espedienteek kapitulu honetako ekitaldiko betebeharren ehuneko 67 egiten dute.

Ondoren, ondorio eta iruzkin aipagarrienak azalduko ditugu:

a) Espediente hauek berrikusi ondoren, ez dugu ikusi administrazio kontratazioa arautzen duten arau indardunen betetzean huts egiterik izan denik, ez eta espedienteen jarraipen administratiboan ere. Ondokoak dira espediente horien datu nagusiak:

Ezpondak berrezartzea: Udaleko bideak konpontzeko obrak dira, 2001ean Udalak 17 milioitan adjudikatutakoak prozedura negoziatuaren bitartez. Obra hori ekitaldi berean bukatu da, adjudikatutako zenbatekotik desbideraketa handirik izan gabe.

Kiroldegia eraikitzea: Obra 167 milioi pezetatan adjudikatu zen 2000n, prozedura negoziatua erabiliz. Obra hori 2001ean bukatu zen, eta ez zen adjudikatutako zenbatekotik desbideratu.

Igerileku estalia eraikitzea: 2001eko ekitaldian 279 milioi pezetatan adjudikaturiko inbertsio bat da. Gaur den egunean, obrak hasita daude.

b) 2001ean eginiko inbertsio errealean gainerakoa aztertuta, zenbait inbertsio ikusi ahal izan ditugu ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuei dagozkienak eta, horrenbestez, gaizki sailkaturik daudenak. Kontzeptu horien barruan, Aragoi ibaiko zaborrak ateratzeko eta ibaia dragatzeko gastuak daude, 3.320 eta 1.797 mila pezeta egiten dutenak, hurrenez hurren.

VI.5. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Ganbera honen aburuz Udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VI.5.1. Antolamendu orokorra

Comptos Ganberak hauxe gomendatzen du:

- Udalaren egitura aztertzea, udalaren kudeaketa-beharretarako egokia den egiaztatzeko.

- Barne araubideko erregelamendu bat egitea, udalaren organo exekutiboaren eskumenak definitzeko eta eskumenak organoen artean banatzeko.

- Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz jaretzea, eta exekuzio-fase bakoitzerako arduradunak identifikatu eta esleitzea.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloetan eragina duen egintza orok honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Behar bezalako baimena izatea.

b) Kontabilitate-dokumentu baten bidez behar bezala bermatuta egon behar dute, exekuzio-oinarrietan ezarritakoari jarraituz.

c) Behar den justifikazioa izan beharko du, eta, fakturei dagokienez, ikus-onetsia izan beharko dute.

d) Kontu-hartzaileak ikusita egon behar dute.

e) Zuzen kontabilizatuta egon behar dute, sortzapenaren printzipioaren arabera.

- Behar diren neurriak ezartzea udalaren ondare egoera berrezartzeko, kontabilitateko irekitze-prozedura egokituz.

VI.5.2. Inbentarioa-lbilgetua

Hona gure gomendioa:

- Udal ondasunak –bai jabetza publikokoak, bai ondarekoak eta herri-ondasunak ere– eskuratzeko eta erregistratzeko prozesua osatzea.

- Udal inbentarioa gaurkotu eta onestea.

- Udal inbentarioa etengabe gaurkatzeko eta hura kontabilitatearekin konektatzeko bidea ematen duten prozedurak diseinatu eta aplikatzea, ibilgetuari buruzko dokumentazioaren altak, bajak eta artxibatzeak kontu hauei aplikatzekoak zaizkien irizpideen arabera kontabilizatzeko prozedurak ezartzea.

- Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.

VI.5.3. Tributu bidezko dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak

Udalak ordenantza fiskalak ditu, 2001ean onetsiak eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuak.

Hona gure gomendioa:

- Tasa eta prezio publikoek jasaten dituzten kostuei buruzko azterlanak aldizka gaurkotzea.

- Tributu-figura ezberdinen errolden aldaketak formalki onestea.

VI.5.4. Alderdi orokorrak

Hona gomendioak:

- Aurrekontuko gastuak eta dirusarrerak sortzapenaren arabera kontabilizatzeko, aurrekontuaren betetzearen jarraipen egokia egin ahal izateko.

- Aurrekontu-aldaketen espedienteak aldaketa horiek egiten diren unean osatzea, euren kontabilizazio, informazio eta onespeneraren artean denbora-desfaserik izan gabe. Haiek legeetan ezarritakoaren arabera osatzea.

- Gastuak eta dirusarrerak beren jatorri ekonomikoaren arabera egozteko aurrekontuari.

- Finantzaketaren desbideraketak kalkulatzeko, diruzaintzako gerakinari modu egokian atxikitze-ko, baliabideak zenbait gastu nahiz inbertsiori atxikirik dauden ala ez, horren arabera.

- Aurrekontuaz besteko kontusailen egoerari Nilsaren kanona dela- eta dagoen zorra eta BEZaren ondorioz ordaintzeke dagoen saldoa zuzen aurkeztea.

- Epe luzeko zor gisa aitortzea kredituetatik erabiltzen den zatia, eta ez jotzea diruzaintzako saldotzat kreditu kontu horietan erabilgarri dagoen kopuru osoa.

- Udalbatzako kideen ordainsariak indarreko arauetan ezarritakoari egokitu behar zaizkio.

- Langileen banakako espedienteak egin behar dira, eta familia egoeraren zinpeko aitortpenei eutsi behar zaie, PFEZaren atxikipen-ehunekoak zuzen aplikatzeko.

- Kontratazio prozedura bat irekitzea Udalean lan egin behar duten langileak hautatzeko eta, edonola ere, inongo ordainketarik ez egitea PFEZaren behar den atxikipena egin gabe.

VI.6. HIRIGINTZA

Caparrosoko Udalarentzat egun indarra duen araudia 1983an onartutako arau subsidiario bat da.

Gaur egun, Caparrosoko Udala udal plana tramitatzen ari da, udalean gertatu diren aldaketa garrantzitsuak eta egun indarra duen araudira egokitu beharra direla eta. Txosten hau idazteko

garaian, 7,4 milioi pezetako dirulaguntza eman zaio udalari kontzeptu horretarako; adjudikazioa, ordea, egiteko dago oraindik.

Udalak, gaur arte, ez du idatzizko azterlan ekonomiko-finantzariarik egin, ezta jarduketa-programen betetze-mailari buruzko jarraipen bera-riazkorik ere. Azterlan bakarra industrialdeari buruzkoa da, gastuei urbanizazio kuoten bitartez eutsi ahal izateko.

Udalak hirigintza-arloko teknikaririk ez dauka plantillan. Udaleko hirigintzaren kudeaketa eraiki-nak zaharberritzeko Tafallako bulegoak betetzen du.

Horra lanetik ateratako gomendioak:

- *Hirigintzaren arloan ezarritako betebeharrak betetzea.*

- *Azterlan ekonomiko-finantzarioen eta jarduketa programen betetze-mailari buruzko jarraipen egokia egin bedi.*

- *Hirigintzako administrazio espediente guztiek hurrengo helburuak lortzeko behar den dokumentazioa izan dezaten ahalegintzea:*

- * *Garbitasuna eta publizitatea bermatzea.*

- * *Erabakiak hartzeko behar diren txosten tekniko guztien bermea izatea.*

- * *Interes publiko edota soziala behar bezala justifikatzea.*


- *Udalaren barne kontroleko zerbitzuek –idazkaritzak eta kontu-hartzaileak– hirigintzako espedienteen tramitazioan bete beharreko zeregi-na zehaztea.*

Lan hau egiteko ardura izan duen Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

I. eranskina. Caparrosoko Udalaren organigrama, 2001eko plantilla organikoaren arabera



II. eranskina. Erabilitako adierazleen definizioa

- Diru-sarreraren betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea = $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea = $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila = $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia = $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea = $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak (1. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea = $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna = $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko = $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Presio fiskala edo tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko = $\frac{\text{Tributu bidezko diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko = $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$

CAPARROSOKO UDALEKO ALKATEAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

2001eko ekitaldiari buruz Comptos Ganberak igorritako behin-behineko fiskalizazio txostena dela eta, Osoko Bilkurak joan den azaroaren 5ean egindako bilkuran hura aztertu eta ondoren, behin-behineko txosten horretako zenbait atali eginiko alegazioak igortzen dizkizut.

III. atala. Norainokoa

“Udal inbentarioaren garapen eskasak eta aplikazio informatikoaren parametroak ezartzerakoan izandako akatsa” aipatu dira. Horri buruz esan behar dugu gaur egun ANIMSAk ez duela inbentarioak egiteko aplikazio informatikorik; hori dela eta, ahal bezain laster behar diren neurriak hartuko ditugu hori garatzeko; gainerakoari dagokionez, akatsen arrazoiak aurkitu egin dira, eta aplikazio informatikoak aldatu izanari eta kontu-hartzaile titularra bajan egoteari zor zaizkio. Antzemandako akatsak zuzentzeko modukoak dira eta zuzentzen ari gara.

IV. atala. Iritzia.

Aurrekoarekin bat, iritzi bera dugu IV.2 puntu c) atalari buruz, udal inbentarioa gaurkoturik ez egoteari dagokionez.

VI. atala. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak

VI.1 2001eko aurrekontuaren betetzeari buruzko iruzkin orokorrak

Abenduaren 31n zeuden langileei dagokionez, 2001eko maiatzaren 14ko 59. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen plantilla organikoan jasotakoa da; hau da:

Funtzionarioak	4 (lanpostu huts bat)
Lan-kontratudun finkoak	5
Behin-behinekoak eta programetakoak	2
Guztira	11

Halaber, ondoko testuak haxe esan behar du: “5 pertsonak egiten dute lan administrazio eta kontabilitate alorrean: idazkaria, kontu-hartzailea (lanpostu hutsa), bi ofizial administrari eta administrari laguntzaile bat”.

Udalak hautetsiei ordaintzen dizkienei buruz, 1991-06-19ko eta 1995-08-07ko udal erabakietan jasotako dietak ordaintzeko modua aplikatu du udal honek, eta uste dugu agian ez datorrela bat dedikazio partzialari eta eskusiboari buruzko arau orokorrekin, hain zuzen abenduaren 29ko 14/2000 Legearen bidez aldatu zen Toki Araubi-

deko Oinarriak arautzen dituen Legeko 75. artikuluan jasotakoak.

Hala eta guztiz ere, badakigu, baita ere, Nafarroako Gobernua, 6/90 Foru Legeko 56.1 artikulua garatuz, udal hautetsiei ordaintzeko sistema presatzen ari dela; hori dela eta, txosten honetan ageri den gomendioa betetzeaz gainera, zuhurra litzateke foru lege proiektu hori kontuan hartzea eta ordainsari edo konpentsazioen sistema hari egokitzea, onespena ematen zaionetik aurrera.

VI.5.1 Antolamendu orokorra

Gomendioei eta, bereziki, udal egiturari dagokionez, ez dirudi egokia denik oraingoz balizko beharrianen berregituraketa egokitua egitea, kontuan hartuta udal mapa berrantolatzeke proiektua; haren arabera, zerbitzu batzuk eskualdeko edo eremuko emanen lirateke, berez udalarena den plantilla ez kargatzeko. Izan ere, zenbait arlotan –hirigintza, gizarte zerbitzuak, ingurumena, kirola eta abar– gaur egun mankomunitate batzuen menpe bagaude ere, gastua arrazionalizatu eta eskura dauzkagun giza baliabideak optimizatzea; hori guztia, dena den, ez dago udal honen esku.

VI.5.2. Inbentarioa-lbilgetua

Gaur egun, alta ematen ari zaie katastro efektuei, lurzati askori eta bide publikoko eremuei, erregistroan inskribatzeko, nahiz eta oraindik ere zenbait lur “koralizen” sistemaren arabera egon, haien gaineko eskubideak erabaki gabe eta, horrenbestez, eta udal ondasunaren izaera eta ondare-edukia zehaztu gabe.

VI.5.4 Alderdi orokorrak

NILSAren kanonari dagokionez, 2002ko apirilaren 2an, bildutako saneamendu kanona, 2001eko ekitaldikoa, ordaindu da.

BEZari dagokionez, ohartarazi behar da 2001eko laugarren lauhilekoko aitorpenean, 2002-01-21ean aurkeztutakoan, udalaren aldeko saldoa 110.065,62 pezetakoa dela. Foru Ogasunak jasotako fakturen liburua eskatu zuen, eta aurrerago, igerileku estalia eraikitzeari buruzko fakturak; eskaria jaso zenean, ordea, 2001eko ekitaldia itxita zegoen.

Bestalde, esan digute TUDECOn azken bi fakturak, 11-30ekoa eta 12-20koa ordainduta, 2002ko urtarrilaren 30ean eta otsailaren 28an, hurrenez hurren, lehenbiziko likidazioan aurkeztutako direla, 2002ko lehen hiruhilekoan, eta haiekin batera, Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntza, ziurtapen horiei dagokiena.

Ordezko deklarazioa aurkezturik, udal honen aldeko saldoak 93.550,63 pezeta egiten du; aurrekontuaz kanpoko saldo hori erregularizatu egin behar da.

VI.6 Hirigintza

Ohartarazi behar da udalak ez duela 7 milioi pezetako dirulaguntza jaso; dirulaguntza hori 2002ko ekitaldirako emanda dago planeamendua aldatzeko tramiteak hasten direnerako (7.403.072 pezeta dira).

Hori guztia dela eta, erantsitako dokumentazioa dela eta, Comptos Ganberak eginiko behin-behineko txostena zuzendu eta egokitzea nahi dugu; hori guztia, aipaturiko epean eta moduan.

Alkate-udalburua

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA.

Caparrosoko Udalak aurkeztu dituen alegazioei Comptos Ganberak eman dien erantzuna.

Caparrosoko Udalak udal horretan 2001. urteari buruz eginiko behin-behineko fiskalizazio-txostena dela eta aurkeztutako alegazioak jaso ditugu Comptos Ganberan. Ganbera honek bere txostenean VI.1 eta VI.6 atalei aurkeztutakoak sartu ditu; izan ere, gainerakoek txostenean aipaturiko iruzkiak azaltzen, justifikatzen edo zabaltzen dituzte.

Hori dela eta, txosten hau behin betikoa izan dadin, eta udaleko Osoko Bilkurak azaroaren 5ean onetsitako alegazioak eranskin gisa sartzea erabaki du.

Iruñean, 2002ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Nafarroako Parlamentuaren ondasunen eta eskubideen inbentario orokorra egin eta mantentzeko instrukzioa

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorren Mahaiak, 2003ko apirilaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Ondare Kontabilitatea abiaraztearekin loturik, Ondasunen eta Eskubideen Inbentario Orokorra kudeatzeko modulu bat garatu da, zeinak berarekin baitakar inbentarioari dagokionez jarduteko sistema guztiz berregituratzea. Horregatik, Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak proposaturik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuari jarraikiz, hauxe ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren ondasunen eta eskubideen inbentario orokorra egin eta mantentzeko instrukzioa onestea, zeina erabaki honen eranskin gisa argitaratuko baita.

2. Salbuespen gisako baimena ematea informatikako programa berrian altak erregularizatzeko, bai eta lehengo bulegoetan erregistraturik egonik egoitza berrira garraiatu ez ziren ondasun guztien baja orokorrak ere.

3. Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiari ahalmena ematea instrukzioa interpretatzeko eta hura garatzeko behar diren ebazpen guztiak emateko.

4. Instrukzio honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean indarra hartzea.

Iruñean, 2003ko apirilaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Eranskina

Nafarroako Parlamentuaren ondasunen eta eskubideen inbentario orokorra egin eta mantentzeko instrukzioa

Instrukzio honen xedea da jarduteko sistema bat ezartzea inbentarioko ondasunen eta eskubideen modulua mantentzeko, informatikako lanabesak baliatuz.

Nafarroako Parlamentuak ondasunen eta eskubideen inbentario orokor bat eginen du, haien izaera, egoera, nora atxikiak izan diren, nola eskuratu diren, edukia eta balioa aintzat hartuz.

Inbentariotzat jotzen da Nafarroako Parlamentuaren ondarea osatzen duten eta haren erakusgarri diren ondasun eta eskubideen zerrenda xehekatu eta bana-banakoa. Barnean hartzen ditu, halaber, edozein titulu juridikoren ondorioz eduki eta erabiltzen dituenak. Bakoitzaren balioa

adierazten du eta zehazturik agertzen ditu behar diren ezaugarri eta datuak, inbentarioa kontabilitatearen euskarri fidagarria eta ibilgetu ez-finantzarioaren kudeaketa eta kontrolerako bitarteko erabilgarria izan dadin.

1. IBILGETUA ZER DEN.

Ikuspegi orokor batetik, ibilgetutzat hartzen da aktiboan jasotako izaera iraunkorreko ondare-elementuen multzoa, zeinak saltzekoak ez diren.

Ibilgetua honela sailkatuko da: materiala eta ez-materiala.

a. IBILGETU MATERIALA. Multzo hau osatzen dute ondare-elementu ukigarriek, higigarriek nahiz higiezinak, baldin eta modu jarraian erabiltzen badira Parlamentuaren ohiko jardueran.

b. IBILGETU EZ-MATERIALA. Multzo hau osatzen dute ondasun eta eskubide ukiezinak, baldin eta, gainera, ezaugarri hauek badituzte: denboran zehar irautea eta ondasunen eta zerbitzuen produkzio-zikloan nahitaez erabiltzekoak izatea.

1.1. IBILGETU MATERIALA.

A. ONDASUN HIGIEZINAK. Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak haien kudeaketa zentralizatu egiten du, eta honako datu hauek adieraziko ditu:

Higiezina zein izenez ezagutzen den.

– Haren kokaleku zehatz eta xehekatua, eta horrekin batera, kasua bada, haren plano edo argazkiak. Azalerari buruzko datuak ere erantsiko dira.

– Erregistroko inskripzioari buruzko datuak edo jabetza-titulua, halakorik balego.

– Higiezinaren egoera juridikoa.

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK:

Beharrezkotzat joko dira eskuratze-prezio edo –kostua, lurzoruaren balioa, hegalkinaren balioa eta konponketa- eta mantentze-gastuak.

Eskuratze-prezioaren osagai izanen dira, iraunkorrak diren instalazio eta elementu guztiez gain, eraikuntzari berez dagozkion tasak eta proiektuko nahiz obra-zuzendaritzako fakultatiboen ordainsariak.

B. ONDASUN HIGIGARRIAK

Honako ezaugarri hauek izan behar dituzte:

– Ondare-ondasunak izatea edo lagapen edo atxikipen bidez jasotakoak izatea.

– Parlamentuaren ohiko jardueran modu jarraian erabiliak izatea eta salmentarako ez izatea.

– Euren bizitza baliagarriak aurrekontu-ekitaldi baten iraupena gainditzea.

– 450 euro baino gehiagoko eskuratze-prezioa izatea.

– Banan-banan kontuan harturik aurreko baldintza guztiak betetzen dituzten ondasunak batera eskuratzean asmoa baldin badago ezaugarri tekniko edo eredu berekoak diren bi ondasun, gutxienez ere, erosteko, eta haien banakako prezioen batura 900 euro baino handiagoa bada, Parlamentuaren ondarearen osaketa funtsean aldatzen dela joko da eta, beraz, haien zenbatekoa inbertsioetarako aurrekontu-dotazioei egotzi beharko zaie, eta inbentarioan alta eman beharko zaie.

– Nahiz eta aurreko baldintzetatik baten bat ez bete, Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak erabaki ahalko du, salbuespen gisa, ondasun jakin batzuk inbentarioan sartzeko moduko ondasuntzat jotzea, hobeto kontrolatzeko xedez. Horrela, inbentarioan edozein kasutan sartzeko modukotzat joko dira:

• Informazioaren tratamendurako ekipoak (ordenagailuak, inprimagailuak, eskanerrak, irakurgailuak...).

• Ikus-entzunezko ekipoak (proiektoreak, pantailak, audio eta bideo ekipoak...).

• Kafetegiko altzariak, sukalde-tresnak izan ezik.

INBENTARIOAN ALTA EMANEN EZ ZAIE-NAK.

Aurretik esandakoa gorabehera, honako hauei ez zaie alta emanen inbentarioan: errezel, pertsiana eta antzekoak; sabai, horma edo mahaiko lanpara finkoak; sakelako telefonoak, su-itxalgailuak, ontziak, argazkiak, aterki-ontziak, paperontziak, landareak, protokolorako objektuak. Salbuespena izanen dira balio berezia daukatenak.

Balio handi edo artistikoko ondasun higigarri dagokienez, argazki, dokumentu edo identifikaziorako behar diren datuak erantsiko dira.

Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak behar den lankidetzat eskatu ahalko die gainerako zerbitzuei, inbentarioa gaurkotzeko.

Inbentarioan sartzekoak diren ondasun edo eskubideak edozein titulu dela medio eskuratu dituzten esleipen- edo lagapen-hartzaileek informazioa eman beharko dute, eskatzen zaienean,

ondasun edo eskubide haien kokaleku, titulu, erabilera edo egoerari buruz.

Inbentario Orokorra urtero gaurkotuko da.

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK:

Kostu bidezko eskurapenen kasuan, balioa orokorrean izanen da eskuratze-prezioaren arabera, zeinak honako osagai hauek baititu:

- Saltzaileak fakturaturiko zenbatekoa.
- Ondasuna funtzionatu ahal izateko moduan dagoen arte suerta litezkeen gastu gehigarriak.

Eskuratze-eragiketan ordainketa partzial modura beste ibilgetu bat entregatzen baldin bada, kontabilitate-balio gisa hartuko da jasotako aktiboaren balioa, Estatuko Administrazioako Kontu-hartzailletza Orokorraren irizpideei jarraikiz, eta entregatzen denari baja emanen zaio, bere kontabilitate-balio garbia aintzat hartuz.

Ondasuna irabazizko eskurapen baten bidez lortu bada, eskurapenaren dokumentuan balioespenez ezarri ezean, eskuratu zen unean zeukan salmenta-balioa hartuko da aintzat. Balio hori zehaztu ahalko da honako prozedura hauetako baten bidez: peritu espezializatuak eginiko tasazioz, merkatu antolatuetako batez besteko balioen arabera, ohiko hornitzaileen prezio-zerrenden bidez edo ezartzen den beste prozedura baten bidez. Balio hori Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak zehaztuko du.

1.2. IBILGETU EZ-MATERIALA

Multzo hau osatzen dute ondasun ukiezinek eta ekonomikoki balioets daitezkeen eskubideek, baldin eta, gainera, ezaugarri hauek badituzte: denboran zehar irautea eta Nafarroako Parlamentuaren ohiko jarduera egiteko erabiltzea.

Izan behar dituzten ezaugarriak ibilgetu materialerako aipaturiko berberak izanen dira.

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK:

Informatikako aplikazioetan haien instalazioak berezko dituen gastu guztiak balioetsiko dira; baita erabili diren patente edo lizentziak ere.

2. IBILGETUAREN ERAGIKETAK.

2.1. ONDASUNEN ALTA EDO IBILGETUAREN GEHIKUNTZA.

Salerosketa bidezko eskurapena: ondasun zehaztuak, osoak eta bukatuak, hirugarrenek hornituak, eskuratzea.

Eskurapen-prezioak barnean hartzen ditu, gainera, funtzionamenduan jartzearekin zerikusia

daukaten gastu gehigarri guztiak, une horretara arte sortzen direnak, hala nola eskurapenari aplikatzen zaizkion zergak, garraio-gastuak, asegu-ruak, muntaia eta antzekoak.

Irabazizko eskurapena: Eskurapen-mota hone-tan, eskurapena doakoa da, eta ondasuna bere salmenta-balioarekin erregistratzen da.

PROZEDURA.

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak inbentarioan alta emanen die ibilgetutzat hartuak izateko behar diren ezaugarriak daukaten elementuei, hain zuzen ere erosketari loturiko fakturarekiko adostasuna edo, kasua bada, lagapena onartzeko dokumentuarekiko adostasuna (dokumentu hori helburu horrekin sinatua izanen da), jaso ondoren. Alta hori ematea NAHITAEZKOA da eta FAKTURA TRAMITATZEAREKIN BATERA eginen da, berdin delarik kokalekuari buruzko datuen konstantziarik dagoen edo ez dagoen, halako moldez non fakturak ordaintzeko baimenik ez baita emanen haiei inbentarioaren moduluan alta ematen ez zaien bitartean.

Faktura bati adostasuna emateak esan nahi du salerosketa-egintza gauzatu dela kudeaketako gastu-unitatearen oniritzi osoarekin, eta hornidurako materiala bat datorrela dokumentu horretan adierazten denarekin, hitzarturiko prezioan eskuratu dela eta behar bezalako funtzionamendu-baldintzetan dagoela.

Inbentarioa Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak eginen du beti. Inbentarioan sartu ondoren, Zerbitzu Orokorrei hori jakinarazteko alta-gaztigu bat emanen da, eta horrekin batera, erabilitako inbentario-zenbakiak dituzten etiketak bidaliko zaizkie. Zerbitzu Orokorretako arduradunaren erantzukizuna izanen da etiketa horiek elementuetan berehalakoan eta behar bezala ipintzea. Alta-gaztiguak Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari itzuliko zaizkio, Zerbitzu Orokorren adostasuna dutela, eta ohar bat erantsiko zaie, ondasunak zer gelatan dauden adierazten duena, baldin eta gaztigan informazio horren berri ematen ez bada edo emandako informazioa okerra bada, xede horrekin prestatutako Nafarroako Parlamentuko gela katalogoaren arabera, horrela inbentarioko fitxa guztia osatu ahal izateko. Alta-ematea ez da bukatutzat joko kokalekua erregistratuta ez dagoen bitartean, nahiz eta horrek ez duen geraraziko faktura bat ordaintzeko tramite normala, haren fitxan bete gabe dauden datu bakarrak kokalekuari buruzkoak baldin badi-ra, betiere.

Aurreko prozesu horren gehieneko iraupena HILABETE batekoa izanen da, zeina kontatzen

hasiko baita fakturako datuak sartu eta kasuan kasuko unitatera bidali diren unetik aurrera.

Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuek behin betiko alta-gaztigu informatiboa emanen dute, eta Zerbitzu Orokorrei bidaliko zaie.

Inbentarioko unitatea banaka harturiko ondasun bakoitza da, eta sistemak ahalbidetzen du ezaugarri tekniko berberak dituzten ondasunen multzoak batera erregistratzea: haiek inbentario-zenbaki bera izanen dute, eta ondasun bakoitzak elkarren segidako zenbaki bana izanen du.

Faktura beraren bitartez ondasun nagusi bat eta bere osagarriak erosten direnean, inbentarioko unitate bakarra bailiran erregistratuko dira, geroago haiek bereizteko asmoa dagoenean izan ezik; baina adieraziko da, ezaugarri gehigarri gisa, osagarriak badaudela.

BALIO-GEHIKUNTZAK.

Hobekuntza edo gehikuntza gisa jotzen da ibilgetuko elementu bat aldatu eta lehen zeukan efizientzia areagotzea eragiten duten jardueren multzoa. Balio-gehikuntza gisa aintzat hartu ahal izateko, hobekuntza batek honako eragin hauek izan beharko ditu:

- Produkzio-ahalmena handitzea.
- Produktibitatea nabarmenki hobetzea edo estimazioen araberrako erabilera-bizitza luzatzea.
- Erosketa bat inbentarioan sartzekoa izateko baldintzak betetzea.

Balio-gehikuntzak tratatuko dira inbentarioko altak bezalaxe.

EZ DIRA INBENTARIOAN SARTZEKOAK IZANEN KONPONKETAK, EZ ETA ORDEZKO PIEZAK ERE, ANTZEKO BATZUEN ORDEZ JARTZEKOAK DIRENAK.

2.2. INBENTARIOAN JADANIK SARTURIKO ONDASUNEN KOKALEKUAREN ALDAKETA NAFARROAKO PARLAMENTUAREN BARRUAN.

Inbentarioan jadanik sarturiko ondasunek zenbait aldaketa izan ahal dituzte euren bizitza aktiboan zehar:

- **ONDASUNAK LEKUZ ALDATZEA HAIK ERABILTZEN DITUEN UNITATEAREN BERRA BARRUAN** (gela-aldaketa). Ekitaldi ekonomikoan zehar irauteko asmoz eginiko kokaleku-aldaketa bat dagoenean, horren erantzukizuna duten zerbitzuek jakinarazi beharko dute, eta behar den aldaketa eginen da.

- **UNITATE BATEK ONDASUNAK BESTE BATI ALDI BATERAKO UZTEA** (Parlamentuaren barruan eta epe jakin baterako). Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuei jakinarazi beharko zaie, bi unitateetako arduradunen adostasuna daukan idazki baten bidez, nora esleitu den ondasuna antolaketaren ikuspegitik, zer gela izanen den haren kokaleku berria eta maileguak gutxi gorabehera zenbat denbora iraunen duen. Inbentarioko fitxako "Oharrrak" atalean idatzi beharko da "Aldi baterako maileguan, gutxi gorabehera egun honetara arte:...".

• ONDASUNAK UNITATE BATETIK BESTERA BEHIN BETIKO ESKUALDATZEA.

Aurreko atalean bezalaxe jokatu da. Bereiztasun bakarra honetan datza: "Oharrrak" atalean ez da ezer idatziko, eta egoera juridikoak ez du inolako aldaketarik izanen.

2.3. BAJA

Zentro erabiltzaile batek daukan material bat ez bada, bere aurreikuspenen arabera, erabilgarria izanen, dela zaharkiturik dagoelako, dela hondaturik edo matxuraturik dagoelako, eta ez bada go asmorik Parlamentuko beste unitate batera eskualdatzeko, horren berri emanen die, idatziz, Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuei, eta material horrekin zer egin litekeen jakinaraziko die (biltegi-ratu, besterendu, desmuntatu edo suntsitu). Gutxienez ere sei hilabete behin, Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak espediente bat eginen du, eta Biltzarreko Mahaiaren eskuetan utziko du ondasun horiek zertan erabili behin betiko erabakitzeko. Behin betiko bajak Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak eginen ditu, Mahaiaren erabakia, nahitaezkoa, aplikatuz. Eragiketa honen ondorioz, ukituriko erregistroak "baja" gisa markatzen dira, eta une horretatik aurrera erabiliko dira soilik honako hauek prestatzeko: urteko kontuak, baja-egoerara pasa diren ekitaldiari buruzko estatistikak edo informazio historikoa.

2.4 KASU BEREZIAK

2.4.1. ERABILERA OROKORREKO FUNTS BIBLIOGRAFIKOAK ESKURATZEA

Multzo honetako ondasunak, normalki Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuak eskuratutak, idatz-ohar kolektiboen bitartez sartuko dira inbentarioan. Elementu horiek erregistratzen dira informazio guztia barnean hartzen duen informatikako sistema batean.

Eskuratze-balioak BEZa hartuko du barnean.

2.4.2. ERAGIKETA MISTOAK.

Eragiketa hauetan, ondasun-multzo bat kontabilitate-subjektuaren inbentarioan sartzen da,

alten tratamendu berarekin, eta, kontraprestazio gisa, beste ondasun-multzo bat inbentariotik ateratzen da, bajeen tratamendu berarekin, eskudirua emanez nahiz eman gabe.

Eragiketako oreka ekonomikoaren arabera, izan daitezke truke hutsak, eskudiru bidezko ordaina daukaten trukeak, eta jenerozko ordainketa partziala daukaten salerosketak.

Eragiketa honetan, inbentariotik ateratzen den/diren ondasunaren/ondasunen baja egiten da alteen batera, aldi berean, eta Mahaiak eragiketa baimentzeko hartutako erabakia aplikatzen da.

2.4.3. ERABILERA LAGATZEKO ERAGIKETAK ETA HORIEI PAREKATUAK

Eragiketa horien bitartez, kontabilitate-subjektuak beste ente bati uzten dio inbentarioan agertzen den ondasun baten erabilera, baina haien gaineko jabetzari eusten dio; adibidez, erabilera-lagapenean eta atxikipenean. Halaber, multzo honetan sartzen dira aurrekoen eraginak deuseztatzen dituzten eragiketak, hala nola erabilera-lagapenaren itzulketa, epea betetzeagatik lagapen-erabilera amaitzea eta berreskurapena.

Lagatako ondasunak "lagatu" gisa markatzen dira, jatorrizko kontabilitate-subjektuari atxikiak, baina ez zaie baje ematen, kontabilitate-subjektuak haien gaineko eskubideak izaten segitzen baitu. Beraz, jatorrizko kontabilitate-subjektuaren inbentarioan agertzen segitzen dute, haiek haren kontabilitatean agertu edo ez agertu.

3. INBENTARIOAN SARTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Inbentarioa kudeatzeko moduluak fitxa edo dokumentu bat emanen du, eta hori, adostasuna behar bezala adierazia duen fakturarekin batera edo, kasua bada, atxikipen edo lagapena onartzeko dokumentuarekin batera, eginiko eragiketa bakoitzaren euskarri izanen da.

4. INBENTARIOAREN KONTROLA ETA JARRAIPENA.

Nafarroako Parlamentuak zainduko du araudi hau behar bezala betetzen dela, eta, horretarako, beharrezkoak diren kontrol-sistemak ezarriko ditu.

5. NAFARROAKO PARLAMENTUKO GELEN KATALOGOA

Nafarroako Parlamentuaren egoitzaren barruan (Iruñeko Navas de Tolosa kaleko 1. zenbakian kokaturiko eraikina), kokaleku fisikoa gela-katalogo honen arabera zehaztuko da:

- Bigarren Solairua, "01" kodea.
- Lehen Solairua, "02" kodea.
- Behe Solairua, "03" kodea.
- Erdi sotoa (Osoko Bilkura, artxiboak), "04" kodea.
- Sotoa (Garajea), "05" kodea.

Inbentarioaren ikuspegitik, solairu bakoitza gela bakartzat hartuko da. Kokaleku-aldaketa ez da jakinarazi behar baldin eta aldaketa egiten bada solairu beraren barruan.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 40,27 euro Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,02 » Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,20 »	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
--	---